

AIARALDEA *hemen*



LUIS B. RODRIGUEZ:
"Badaude ipuinarekin
negar egin duten gurasoak,
oso istorio gizatiarra
kontatzen baitu" 14 or.

ANDIMA ERRAZTI:
"Zirrara sortzen duen
bizikleta modalitatea da
BMXa" 19 or.



Zurrumurruen aurka, elkarlanean



Iban Pagalday

AIARALDEA 3
Amurrio eta Urduñako
tren geltokietako obrak
esleitu dituzte
Urte amaieran esleitu
dituzte Aretako geltokian
pasabidea egiteko obrak.

URDUÑA 5
Sinadura bilketa hasi
dute Eusko Jaurilaritzaren
blokeoa salatzeko
Herri Ikastetxeko jantoki
proiektua geldituta dagoela
salatu du Guraso Elkartek.

URDUÑA 5
Polizia operazioa egin
dute, migrazio ilegalari
eta drogei lotuta
Hiru pertsona atxilotu ditu
Guardia Zibilak Urduñan,
Frankos kalean.

AIARA 6
Protesta ekimen ugari
egin dituzte lan heriotza
salatzeko
Murgako argindar estazioan
hil zen 22 urteko behargina,
elektrokutatuta.

KULTURA 15
Urriaren 4tik 18ra egingo
da Begibistan zinema
jaialdia
Lau sari gehiago egongo dira
eta emanaldiak eskainiko
dituzte baita ikastetxeetan.

NEURRIRA EGINDAKO JAIETARAKO PRODUKTUAK

KAMISETAK, ZAPIAK, ...
BEHAR DUZUNA ESKATU
ETA LORTUKO DUGU ///

SERIGRAFIA, BORDATUA,
BINILOA, IMPRESIO DIGITALA



PRODUKTU PROMOZIONALA
JANTZI ZERBITZUAK
MARKA KUDEAKETA///

Telleria 2, LAUDIO
94 672 65 43
pro@grafiksarea.com
www.grafiksarea.com

herriz herri

Laudio

Kultura, kirola eta jai ekimenezko diru-laguntza deialdia plazaratu du Udalak



Herrian eginko kultur ekitaldi baen irudia. Aiaraldea.eus



Testua **Lucia Martin Menoyo**

Kulturekimenentarako 42.000 euro banatuko ditu udalak, 34.500€ herrian antolatutako ekintzetarako (etxe erregionalak kanpo geratuko dira izendun diru-laguntzak jasoko dituztelako) eta 7.500€ Laudiotik kanpo kultur ekitaldietan parte hartzeko bidaiak laguntzeko.

Kirol diru-laguntzei dagokienez, 64.583 eurokoa izango da diru-partida: 45.715€ federatutako kirol elkarte eta taldeei bideratuko zaizkie (urteko izendun di-

ru-laguntza duten taldeak kanpo geratuko dira), 3.642€ eskola kirola laguntzeko izango dira, 920 aniztasun funtzionala duten pertsonekin aritzen diren kirol elkarteentzat, eta 3.643 kirol ekimen jakinetarako. Kirol klubei dagokienez, 8.235€ gordeko dira maila igoera edo sailkapen fasean dauden taldeentzat, eta 2.428€ kirol elkarteek egin behar dituzten bidaietarako.

Jai ekitaldietarako diru-laguntzetan 40.115€ erabiliko ditu udalak: 5.175€ Santa Luzia ospakizunerako, 1.495€ haur dantborrararako eta gainontzekoa,

33.445€, Sanroke Jaietarako, kasu horretan ere kanpo geratuko dira bestelako laguntza duten jai elkarteak.

Aldaketak prozeduran

Deialdia lehenbailehen ateratzeko eskatu zuen EAJK, eta araudia berrituta aurkeztu du gobernu taldeak diru-laguntzen banaketa.

Izan ere, bi dokumentu aurkeztu dira: alde batetik elkarteek bete behar dituzten baldintzak zehazten dituen, eta bestetik deialdiaren zenbatekoak jasotzeko dokumentua.

18 familiari lagundu behar izan die udalak, Lanbidek Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta kendu dielako

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Laudioko 28 familiari eman zizkien udalak "mantentze-laguntzak" iaz. Horietako 18ri Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta (DBE) kendu zien Lanbidek, eta horregatik jo zuten udalera.

Hala adierazi du Isa Boveda ongizate arloko zinegotziak. "DBE kendu dieten familiak lagundu ditugu, betiere diru-laguntza hori arduragabekeriaga-

tik edota informazioa ezkutatzeagatik galdu ez badute", azaldu du, eta salatu du Lanbiderekin "arazo asko" ari direla izaten azkenaldian, "malgutasun gutxirekin jokatzeko ari dira kasu askotan. Hanka sartze txikiengatik ere ukatzen dute DBE hartzeko eskubidea".

Eskaera kopuruak gora

Larrialdi Sozialerako diru-laguntzak ere eskaintzen ditu udalak. Iaz 155 familiek eskatu zuten

bultzada. 230.000€ bideratu ziren horretarako. Eusko Jaurlaritzak 196.000€ jarri zituen eta udalak 34.000€. Bovedak nabarmendu du azken hiru urteetan igo egin dela laguntza eskatzen duten familien kopurua. Elikagai bankuarekin ere elkarlanean aritzen da udala. Hain zuzen, iaz 60 tona elikagai banatu zituzten 341 familien artean. Etxegabeen kasuan, berriz, bazkarietarako 135 bono eta garraiorako 89 txartel banatu zituzten 2016an.

Txertatu Merkatuan programaren fase berria abiatu dute

Testua **Aitor Fernandez de Pinedo**

Laudioko Garapen Agentziak "Txertatu Merkatuan" programaren fase berria hasi berri du. 2016an garatutako lehen fasean egitasmoan parte hartu duen gazteen % 40ak lortu du lanean aritzea.

Ekimenak lan zirkuituetan txertatzeko aukera eskaini nahi die kualifikazio gutxi duten, langabezian dauden edo prestakuntza jasotzen ari ez diren 16 eta 30 urte bitarteko gazteei. Partaideei dago-

kienez, 12 pertsona aritu ziren 2016an. Hauetatik 5 lanean ari dira egun, beste seik lan bilaketa aktiboan dihardute eta beste bat merkataritzan prestakuntza jasotzen ari da.

Laudiolan

Bestalde, Laudio Garapen Agentziak merkataritzako jardura osagarrietan profesionaltasun-ziurtagiria eskuratzeko prestakuntza programa burutu berri du. Bertan eskualdeko 15 langabetu aritu izan dira ziurtagiria izateko trebakuntza teknikoak jasotzen.

8 urteko kartzela zigorra eskatuko diote gizon bati bikotekidea erasotzeagatik

Testua **Aitor Aspuru Saez**

Fiskaltzak zortzi urteko kartzela zigorra eskatu du gizon batek bikotekidea erasotu delakoan. Ustezko erasotzaileari leporatu diote zenbait kolpe ematea biktimari. Gasteizko Auzitegian egingo dute epaiketa.

Zerbitzu medikuek emakumea artatu behar izan zuten eta, horrez gain, ebakuntza

egin behar izan zioten ahoan. Akusatua aurrekariak ditu delitu bera egiteagatik, eta hiru urteko espetxe zigor eskaera du tratatu txar fisiko eta psikologikoak eragiteagatik etxeko esparruan.

Gainera, 5 urte gehiagoko zigorra eskatuko dio fiskaltzak lesioak egiteagatik emakumeari.

Horrekin batera, hamabi urteko urrutze agindua ezarri nahi dio fiskalak.

San Martinen amiantoa dagoela eta "berehala" erretiratu behar dela ohartarazi du CCOOek

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Udaleko Langile Komizioetako (CCOO) sail sindikalak idatzia plazaratu du salatzen San Martingo zelaian amiantoa dagoela eta "berehala" kendu egin beharko litzatekeela.

Sindikatuak adierazi du uraltzako hainbat plaka dagoela zelaiko eraikin bateko teila-

tuan. Juanjo Basterra kazetari ikertzaileak baieztatu egin du amiantoaren existentzia, eta erantsi du plaka horiek ez zirela agertzen Novotec enpresak eginiko txostenean, "bistara egon arren". Laudio Udalak adierazi du sindikatuaren eskaera aztertuko dutela, eta hasiak direla dagoeneko amiantoa kentzen udalarenak diren hainbat eraikinetatik.

Aiaraldea

Amurrio, Urduña eta Aretako tren geltokietako obren esleipenak abian



Maria Luisa Goikoetxea, Urduñako tren geltokian eginiko protesta batean. Antonio Muñoz



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Esleitu berri ditu Adifek Urduñako eta Amurrioko tren geltokietako obrak, hiru milioi baino gehiagoko aurrekontuarekin. Urduñako geltokian 929.433 euroko inbertsioa egingo dute. Hainbat hobekuntza egingo dute: bi nasen altuera areagotzea, nasa batetik bestera igarotzeko arrapala eta barandak jarzea, sarreraren berrantolaketa egitea, LED motako argiteria instalatzea, hainbat gela berritzea eta hesiak ezartzea espazioen arteko banaketak egiteko.

Amurrion, aldiz, 2,1 milioi euro inbertituko dituzte trenbidea irisgarri egiteko. Sarrerak eta hesiak ere moldatuko dituzte, mugikortasuna eta irisgarritasuna hobetze aldera. Horrez gain, egungo pasabidea kendu, argiteria aldatu eta markesina berriak ezarriko dituzte.

Maria Luisa Goikoetxeak salatu duenez, ADIF ez da ari hitzemandako epeak betetzen. "Madrilen izan nuen bileran agindu zidaten bagoi egokitua udarako jarriko zutela, baina horretarako obrak eginak egon behar dira lehendabizi, eta lizitazioarekin baldin badaude oraindik..."

Aretan pasabidea egingo da

Adif-ek jakinarazi du 2017ko amaieran esleipena abiatzeko asmoa daukala Aretako geltokia ixteko eta irisgarritasuna bermatzeko. Astelehenean jakinarazi zuten, EAJko Iñigo Barandiaran kongresistaren galdera bati erantzuteko.

Horrela, erakundeak iragarri du lur azpiko pasabidea eraikiko duela, igogailuak jarriko dituela eta hesiak erabilita itxiko duela eremua. Gainera, nasak handitu nahi ditu Adifek, eta argiteria berri. Antza, 2 milioi euro inbertituko dituzte Aretako obra horiek guztiak gauzatzeko.

Arrankudiaga-Zollo

Gazteak kontratatuko dituzte udaleku irekiak eta zaintza zerbitzua eskaintzeko

Testua
Txabi Alvarado Bañares

Udaleku irekiak eta zaintza zerbitzua eskainiko ditu Arrankudiaga-Zolloko Udalak udan, uztailaren 3tik 14ra. Zaintza zerbitzua 2012 eta 2014 urteen bitartean jaiotako haurrei egongo da bideratua, eta udaleku irekiak 2004 eta 2011 urteen arteko. Izena emateko azken eguna ekainaren 16a izango da, 12:00ak baino lehen, udaletxean.

Herriko gazteak kontratatuko ditu udalak bi zerbitzu horiek eskaintzeko.

Interesdunek hainbat dokumentu aurkeztu beharko dute horretarako: Curriculum eguneratua, langabezia txartela, Gizarte Segurantzako afiliazio zenbakia eta duten prestakuntzari buruzko egiaztagirak.

Eskakizunak

Izena ematen dutenek zenbait eskakizun bete beharko dituzte: udalerrian erroldatuak egotea, 18-30 urte izatea, euskalduna izatea eta langabezian egotea. Hezkuntzarekin erlazionatutako ikasketak eta euskara tituluak izatea ere baloratuko da.

Konpromisoa
gure lurrarekin,
eta gure hizkuntzarekin



JEZ Sistemas Ferroviarios Arantzar z/g · 01400 Laudio (Araba)
Tel.: 946 721 200 Fax: 946 720 092 infor@jez.es

A I A R A L D E A
K O O P E R A T I B A
E L K A R T E A

KOOPERATIBAREN EZOHKO BATZAR NAGUSIA
KOOPERATIBAKO BAZKIDEEI DEIALDIA

EGUNA: 2017ko ekainaren 17
ORDUA: 09:30, lehenengo deialdia. 10:00, bigarren deialdia.
TOKIA: Laudioko Industrialdea 4-8 pabiloia, LAUDIO (Araba)

herriz herri

Artziniega

Herriko gazteek erabakiko dituzte Gazte Txokoaren arauak

Testua
Aitor Aspuru Saez

Urrian irekiko dute Gazte Txokoa; eta udaletxe ohia egokitzeke obrekin batera, begiralea kontratatu du udalak gazteekin adostu ditzan lekua kudeatzeko arauak.

12 eta 18 urte bitarteko nerabeei bideratuta dago Gazte Txokoa, euren topagunea izateko asmoz. Horrez gain, Artziniegako Udalak gazte politikak zabaltzeko baliatu nahi du azpiegitura.

238.400 euro erabiliko ditu instituzioak eraikina berritzeko, Arabako Foru Aldundiaren diru-laguntza bat erabilita. Eraikinaren hiru solairuak egokituko dira.



Eraikin osoa berrituko dute. Artziniegako Udala

Haurrengan abesbatza sustatzeko ikastaroa egingo dute

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Haurrak koraletara gerturatzeko ikastaroa antolatu du Bleibet abesbatzak hirugarrenez Artziniegan. Ekainaren 25ean izango da kantagintza tailerra, eta umeen artean abesbatza sustatzea izango da helburua. Arteko Gure Ama ikastetxean jarri dute hitzordua, 10:00etatik aurrera.

Ikasteaz gain, kontzertua eskaintzeko aukera izango dute. Izan ere, arratsaldean egingo dute entsegua -15:30etik 17:30era- eta emanaldi publikoa egongo da ondoren.

Arakaldo

Jaiak antolatzeke bilera irekia egin dute herritarrek

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Maiatzeko osoko bilkuran zehaztu zituzten Arakaldoko jaietako datak. Uztailaren 14tik 16ra izango dira aurten, ostiraletik igandera, hain zuzen. Jabi Asurmendi alkateak azaldu duenez, festen prestaketari ekin diote dagoeneko. Herri asanblada deitu zuten horretarako. "10 lagun inguruk parte hartu genuen", adierazi du alkateak. Era horretan jaso dituzte herritarren iritzi eta proposamenak. Ideiak bilduta, egitaraua osatzeari ekingo dio orain udalak.

Orozko

Zezenen abeltzaintza intentsiboa debekatu du udalak birus baten ondorioz

Testua Aitor Aspuru Saez

Tricomoniosis birusaren kasu bat agertu da Orozkon, Bizkaia eta Araba arteko lurralde komunalean bazka hartzen duen zezen batean, alegia. Laudion eta Zuian kasu gehiago jazo direnez, zezenen abeltzaintza esentsiboa debekatzea erabaki du udalak. Horrek eragina izango du ugalketa eremuan eta

behiak eremu pribatuetan susaldu beharko dituzte.

Sexu harremanen bitartez zabaltzen da tricomoniosis birusa. Arazoak sortzen dizkie behiei erditzean, eta kumeak galtzeko aukerak ugaritzen dira. Horrek populazioaren beherakada eragiten du. Orozkoko zein inguruko hainbat udalek protokoloa eskatu diete Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiei.

Atzeratu egin da Alaitz Aramendiren kontrako epaiketa Madrilen

Testua Aitor Aspuru Saez

Preso politikoa ekainaren 12an eta 13an epaitu behar zuten, baina azkenean 28an eta 29an eramango dute Entzutegi Nazionalera. Orozkoarra epaitu behar zuten Aretoko presidentea lekuz aldatu dute; eta, ondorioz, beste areto batera mugitu dute kasua. Madrilen ekintza armatua gauzatzea egotzen diote Aramendiri.

Zubiaur Eraikuntzaren 1,5 milioi euroko zorra hartu du udalak bere gain

Testua Txabi A. Bañares

Zubiaur Eraikuntzak aurten ixtea erabaki zuen udalak abenduan. Hori dela eta tokiko erakundearen gain geratu dira sozietate publikoaren aktibo guztiak, 1,5 milioi euroko zorra bane. Sozietateak beste 2,05 milioi euro zor dizkio udalari, baina kopuru hori kontabilitatetik kendu dute, "udalak ezin diolako bere buruari dirua zor".

"Isun morala" jarri diete hurrek eskolarako bidea oztopatzen duten autoei

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Eskola bidean proiektuaren baitan "isun morala" ezarri diete ikastetxeko hurrek bidea eragozten dieten ibilgailuei.

Egitasmoa haurren segurtasuna eta autonomia indartzean datza, haurren parte hartzea sustatuta.

Hala, herriko oztopoak identifikatu eta soluzioak proposatu dizkiote udalari; ikasleek, gurasoek eta merkatariek alkatearekin egindako bileran.

"Isun moralak"

"Eskolara... bakarrik eta seguru!" bertaratzeko beharra adierazi dute isunetan gazteek. "Errepideak zuentzako, eta espaloia ere? Kaleak gureak ere badira!" idatzi dute paperean; baita salatzailearen izena eta adina ere.

Ekimenaren funtsa afera jendarteratzea da. Horregatik gehitu diote isunari, kasuan kasu, autoa oker aparkatzearen ondorioa.

Okondo

Igerilekuen kontratua onartuta, mahai gainean geratu dira aurrekontuak

Testua
Aitor Aspuru Saez

Aho batez onartu zuen Okondoko udal osoko bilkurak Tal-desport enpresari ematea igerilekuen kudeaketa. 33.500 euro ordainduko dizkio horretarako.

Ekainaren 17an irekiko dituzte azpiegiturak, eta irailaren 10ean itxi. Ekainean eta irailean 12:00etatik 20:00ak arte egongo dira erabilgarri; eta uztailean eta abuztuan, ordea, 11:30etik 20:30 arte.

Horrez gain, San Bartolomen ur jai antolatuko dute, eta zenbait ikastaro ere emango dute.

Aurrekontuak ekainerako

2017ko aurrekontuari dagokionez, oposizioak mahai gainean uztea adostu zuen, alegia, ekainean eztabaidatzea.

EAJk proposatu zuen aurrekontuen bozkaketa atzeratzea, eta EH Bilduk onartu egin zuen egitasmoa, denbora gehiago izateko zuzenketak eta ideia propioak txertatzeko.

LOUMARA GARBIKETAK

Garbiketa orokorrak, obra amaieren garbiketak, komunitateen, lokalen eta bulegoen garbiketak egiten ditugu. Tapizerien garbiketaz ere arduratzen gara: sofak, aulkiak, koltxoak, ...

limpiezas.loumara@gmail.com + 620075132

Urduña

4,26 milioi euroko aurrekontua izango du udalak aurten



EH Bilduren aldeko botoekin onartu ziren udal-aurrekontuak. Urduñako Udala

Testua **Txabi Alvarado Bafiñes**

4,23 milioi euroko udal-aurrekontua onartu zuen Urduñako Udalak maiatzeko udal osoko bilkuran. EH Bilduk alde bozkatu zuen. EAJko zinegotziek, aldiz, argudiatu zuten aurrekontuen gehiengoarekin ados zeudela, baina ez zirela bermatzen aurrekusten ziren gastu batzuk egiteko behar diren diru-sarrerak. Horregatik, aurrekontuen aurka bozkatu zuten jeltzaleek.

Udalbatza baino bi egun lehena egin zuten herritarrei bideratutako aurrekontuen aurkezpen irekia. "Udal-aurrekontua zer den eta nola egiten den azaldu zen eta zalantzak argitzezko aukera egon zen", adierazi du gobernu taldeak.

Udal-ordezkarien arabera, ez zen oso handia izan parte hartzea, baina positiboki baloratu dute bilera irekia. "Kontuak beti gardenak eta ulertzeko errazak izan behar dira herritarrentzat, dirua guztiona delako", adierazi dute.

Dirua, arloz arlo
Aurrekontuaren gehiengoa (% 38,97) bideratuko da ogasun eta barne erregimenera. Hau da, udalaren ohiko funtzionamenduko gastuetara.

Gainontzeko dirua udaleko hainbat arloetan banatuko da: aurrekontuaren % 17,83 ongizate arloak erabiliko du, % 16,38 hirigintza eta ingurumen sailak, eta % 10,7 kulturak, kirolak, euskarak eta hezkuntzak.

Egoera ekonomikoa
Udal-gobernutik azaldu dute egoera ekonomikoa "hobetu" egin dela, baina "kezkarria" izaten jarraitzen duela.

"Diru-sarrerak eta diru-laguntzak geroz eta gutxiago dira eta gastu edo beharrak ez dira murrizten", argitu dute, eta nabarmendu dute "oso eskasa" dela oraindik ere "udalak auto-finantzatzeko duen gaitasuna".

Hala ere, udalak jakinarazi du "urtero-urtero" gauzak egiten direla eta "mantendu" egiten direla herritarrei eskaintzen zaizkien zerbitzuak. Gainera, parte hartzerako prozesuak egindutuz-

te hainbat obra gauzatzeko, Mikel Deuna auzoan kasu.

Zorrak

1,4 milioi euroko zorra du Urduñako Udalak BBKrekin, 2004 eta 2005 urteetan eginiko mailegu bategatik. Ez da bakarria: Urduñederrak 1,97 milioi euro zor dizkie BBK eta La Caixari, eta iaz udalak 399.167,45 euroko mailegua jaso zuen IDAetik (Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Institutua). Zor hori hamar urtetan kitatu beharko du instituzioak.

Sarrerak

Udalaren diru-sarrera nagusiak zeintzuk diren ere azaldu dute udal-ordezkariek. Diru-laguntzen bidez jasotzen du Urduñak sarreraren gehiengoa: 2.677.112 euro.

Beste 807.695 euro biltzea aurreikusitako zerga zuzenen bidez, eta 75.000 zerga ez-zuzenekin. Hauek dira beste diru-sarrerak nagusiak: tasak (559.643€), ondare sarrerak (93.100€), kapital transferentziak (31.950€) eta hirigune ustiapenak (23.000€).



Frankos kaleko pisu batean atxilotu zituzten bizilagunak. Andima Landaluze

Hiru auzokide atxilotu dituzte, migrazio ilegala eta droga salmenta egotzita

Testua
Aitor Aspuru Saez

Guardia Zibilak polizia operazioa egin zuen atzo (ekainak 6) Urduñan eta 3 pertsona atxilotu zituen, Frankos kalean. Erakunde armatuak ez du operazioa zertan datzan zehaztu, baina komunikabideek adierazi dute legez kanpoko migra-

zioaren eta drogen trafikoaren aurkako operazioa dela.

Iturri horien arabera, talde antolatua bat izan da polizia operazioaren xedea. Baime-nik gabeko etorkinei Europar sartzea errazten omen die talde horrek.

Hedabideek adierazi dute Talavera de la Reinan eta Cadizen ere miaketak egin dituztela.

Bazkak izango dituzte hizpide Urduñako agroekologia foroaren 93. edizioan

Testua
Txabi Alvarado Bafiñes

Ekainaren 15ean egingo da Urduñako Agroekologia Foroaren 93. edizioa. Abereen bazkak izango dituzte hizpide. Hirian dauden bazkek abeltzaintzaren etorkizunarentzat duten garrantzia jorratuko dute hitzaldi bitartez. Alina De Castro albaitariak hartuko du hitza solasaldian. 19:00etan izango da zita, Alondegian.

Fruta arbolak ikasgai

Ekainaren 17an, aldiz, fruta-arbolen zaintzari buruzko ikastaroa eskainiko du Euskadiko Hazien Sareak. 10:00etatik 12:00etara izango da saioa, toki berean.

"Jaurlaritzaren blokeoa" salatzen sinadura bilketari ekin dio Guraso Elkarteak

Testua
Izar Mendiguren Cosgaya

Urduñako Herri Ikastetxeko Guraso Elkarteak sinadura bilketa hasi du Change.org plataforman. Udal sukaldea gauzatzeko blokeoa salatzea da egitasmoaren helburua, elkarteko kideen esanetan.

Guraso Elkarteak adierazi duenez, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak oztopatu du proiektuaren garapena. Hezkuntza Sailak "froga pilotoa" egitea baimendu zuen bi urtez.

2011n, berriz, Osasun Arloko txostenak emaitza positiboak bildu zituen. Badaude proiektua abiatzeko baldintzak, beraz. Guraso Elkartearen arabera, zortzi urte igaro dituzte sukaldea atontzeko lanean.

herriz herri

Aiara

Protesta ekimen ugari egin dituzte Murgako lan heriotza salatzen



Argindar estazioaren atarian egin dute lan heriotza salatzen ekintzetako bat. Aiaraldea.eus



Testua **Txabi Alvarado Bañares**

22 urteko behargina hil zen iragan astean Murgako argindar estazioan elektrokutatuta. Iberdrolak azpikontrataturako Fatsur Servicios Integrales S.L. enpresan egiten zuen lan. Ez zen izan egun horretan Euskal Herrian jazotako lan istripu bakarra: Urretxun beste langile bat zendu zen andamioetik erorita.

Protesta ekintzak

Murgako lan-heriotzak hainbat erreakzio eragin ditu eskualdean.

Laudioko Iberdrolaren egoitza gorriz margotuta esnatu zen hu-

rrango egunean, eta bulegoaren atea itxi behar izan zuten horren ondorioz. Murgan ere antzeko salaketa ekimena egin zuten, prekaritatea salatzen. Bestalde, elkarretaratzea egin zuen Amurrion Gehiengo Sindikalak (ELA, LAB, ESK, STEILAS, EHNE eta HIRU).

Gertatutakoaren harira ateratako irakurketan sindikatuek adierazi zuten heriotza horiek "ez direla kasualitatea".

"Beste behin azpimarratu nahi dugu prekaritatea dela lan ezbeharren oinarrian dagoen egiturazko arazoa: azpikontratazioak, aldibaterakotasunak, formakuntzarik ezak, lan eritmo biziak... guzti honek lan

istripua izateko aukerak biderkatu egiten ditu", erantsi dute.

Udalaren adierazpena

Aiarako Udalak, bere aldetik, adierazpen instituzionala plazaratu zuen, talde politiko guztien adostasunarekin.

Zentzu horretan, gertatu zena argitzeko balibide guztiak mahai gainean jartzea eskatu zion tokiko erakundeak Osalari, "behar diren neurriak hartzeko". "Egoera hau ez da gizarte moderno batean eredugarria, eta askoz gehiago larriagotzen da langileen lan-baldintzak prekarieztatzen dituen lan-politika honekin", kritikatu dute udal manifestuan.

"Jolas txokoak" egongo dira Luiaondon eta Arespalditzan uztailean

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

"Jolas txokoak" antolatu ditu Aiarako Udalak udarako. Uztailearen 3tik 31ra bitartean eskainiko da haurrentzako zerbitzu hori, astelehenetik ostiralera, 10:00etatik 13:30etara. Eskaintza bikoitza izango da, bi herri-

tan gauzatuko baitira: Luiaondon eta Arespalditzan. 2005 eta 2013 urteen artean jaiotako Aiarako umeei bideratua dago egitasmoa. Irteerak, jolasak eta tailerrak egingo dituzte.

Izena emateko epea

Ekainaren 13 arte egongo da "jolas txokoan" izena emate-

ko epea zabalik. Udaletxean edo Luiaondoko bulegoan bete beharko da inskripzio orria. 35 euro ordaindu beharko dira zerbitzuaz hamabostaldi batean gozatzeko, eta 70 euro hilabete osoan erabiltzeko. Toki kopurua mugatua izango da, eta izena lehenago eman dutenek izango dute lehentasuna.

Amurrio

Ekainaren 23ra arte bozkatu ahalko dira aurrekontuetako proiektu finalistak

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Hautatu dituzte aurrekontu parte hartzerako sustatzeko AmurrioEKIN egitasmoaren azken fasera igaroko diren 20 proiektuak. Bilera ireki batean egin zuten aukeraketa hainbat irizpide erabilita, eta herri bozketaren bidez erabakiko da zeintzuk izango diren behin betiko proiektuak.

Mota askotako proposamenak dira, baina inbertsioei lotutakoak dira guztiak, hori baitzen egitasmoan parte hartzeko bete beharreko baldintzetako bat. 379 ideia jaso zituen udalak herritarren partetik.

Udalak adierazi duenez, horie-

tatik 43 igaro dira parte hartzerako prozesuaren azken aurreko fasera. Proposamen asko bateratu egin dira ideia bera adierazten zutelako. Beste batzuk, aldiz, bideragarriak ez direlako edo baldintzak betetzen ez dituztelako utzi dira albo batera.

Bozketa herritarra

Ekainaren 12tik 23ra izango dute 16 urtetik gorako amurriorrek egitasmoak bozkatzeko aukera. Herritar bakoitzak hiru proiekturi eman ahalko dio batesa.

Udal-erakinetan egongo dira bozak sartzeko ontziak. Aurrez, ordea, 20 proposamenen gaineko informazioa bidali da herriko etxe guztietara.

Saratxoko errepidea izan zuen ardatz Arabako Batzar Nagusien bilerak

Testua **Aitor Aspuru Saez**

PPren babesarekin, PSE-EEk, EAJk eta EH Bilduk proposatutako Saratxoko errepideari buruzko mozioa onartu zuten Amurrio Antzokian, Arabako Batzar Nagusien bilkuran.

Mozioan proiektuak ahalik eta lurralde gutxien okupatzea eskatu zen bide segurtasuna bermatze aldera. Bereziki, txirindularien kasuan, errotondak egiteko proposatu zuten; Saratxo, Lekamaña eta Urduña artean trafikoa ahalbi-

detu dadin, Nerbioiko Parke linealak ibilbide duina izan dezan, eta industriaguneak sarrera izateko, besteak beste. Adierazpenak jasotzen duenez, guzti hori Amurrioko Udalarekin eta Saratxoko Administrazio Batzararekin elkarlanean egin behar du Arabako Foru Aldundiak, eta 2019an lanak abiatu behar dituzte.

Saratxo Bizirik plataformak ez du errealistatzen jo proposamena. Plataformak uste du alderdiak ez direla gai izango aldatzeko Arabako Foru Aldundiaren Errepide Saileko buruaren iritzia.

Aurreakordioa lortu dute Megatecheko langileek zuzendaritzarekin

Testua **Txabi Alvarado Bañares**

Lan-hitzarmenaren gaineko aurreakordioa adostu dute Amurrioko Megatecheko langi-

leak enpresako zuzendaritzarekin. Hiru puntutan lortu dute akordioa, eta negoziatzen jarraituko dute. Hori dela eta, bertan behera utzi dituzte momentuz mobilizazioak.

iritzia

Zezenak Aiaraldean

Aiaraldean jaio edo bizi izan denak badaki zezenen jaiena dela udako argazkirik tradizionalenetariko bat. Laudioko gazteenek plaza mugikorraren irudia dute buruan, herriaren kokatzen dena. Beteranoenek, berriz, oraindik oroitzen dituzte plaza estaltzen zuten oholtzak eta zezenketak; finean, abuztuko jaietako ia ekintza guztiak egiteko baliatzen zirenak. Hor daude egurrezko hesiak, sanroketako goizak gelditzen dituzten entzierroetarako erabiltzen direnak. Ez dago irudi hori buruan ez duen laudioarrik.

XVII. mendean pertsonak kontratatzen zituzten zezenen aurrean korrika egiteko, garai hartan ez baitzegoen zabaldua ospakizuna Iberiar Penintsulan geroago izango zuen haina indarrarekin. Hala jasotzen dute Laudioko Udalaren zenbait dokumentuk. XIX. mendean, berriz, ohikoa zen zezenak askatzea San Rokeren irudia basilikara eraman ostean, Iñaki Azkunek "Zezenak Euskal Herrian" liburuan azaltzen duenaren arabera. Prozesioa, erromeria eta zezenak. Horiek dira Laudioko Jaien hazia eta Euskal Herriaren esentzia.

Zezenketak kendu edo mespretxatu litezke, gaur egun egiten den bezala, baina horrek ez du balioko Laudioaren eta Aiaraldearen identitatearen zati bat mutilatzeko.



ALVARO SUSO

Mazantini zezenzale kluba



LOREA PORRES LEZAMETA

Urduñako tauromakiaren kontrako taldea

Artea? Kultura? Tradizioa?

XXI. mendean onartezina da jatorria erromatar jokoetan duen "denbora-pasa" hau. Hainbat dira tauromakiaren defendatzaileek argudiatzen dituzten arrazoiak, baina erabat baliogabeak. Bidezkoa den borroka dela diote, animalien indarrari begirune handia diotela... zergatik drogatzen dituzte orduan zezenak plazara irten baino lehen? Edo zergatik ematen diote jarrera aldarazteko tratua abereari; leku txiki eta ilunean itxi, barribiletan ziztatu, hanketan zauriak egin zein erretzeko produktuak bota?

Bestetik, diotenez, horretarako hazten dute suhar zezena -edo lidiakoa- baina ni zezena izango banintz, ez nuke nahi inork ni haztea zezen-plaza batean hilik amaitzeko, 20 minutuz torturatua izan eta gero. Zezenaren sufrimendua, publikoaren gozamena. Gainera, ikusleen artean adingabeak egon ahal izatea arduragabekeria galanta iruditzen zait. Izan ere, osasun psikikoan eragin negatiboa daukala diote adituek, garapen pertsonala kaltetzen baitu, eta enpatia gutxitu. Animaliek sufritzen dituzten beste indarkeria batzuen existentziak (jateko akatzea, ehiza...) ez du deslegitimatzen tauromakiaren kontrako borroka. Historiak erakutsi digu askotan tradizioak on baino kalte egiten digula, esklabutza edo matxismoarekin kasu. Gurea da horiek deuseztatzeko ardurara, nahiz eta momentuan zapalkuntza horien jabe ez izan. Horregatik guztiagatik sortu genuen Urduñan tauromakiaren kontrako taldea.

"Prozesioa, erromeria eta zezenak. Horiek dira Laudioko Jaien hazia eta Euskal Herriaren esentzia"



Marisa

Jubilatua

Txikia nintzenetik izan dute zezenketek garrantzia. Ni bartzuetan ikustera joan izan naiz. Horretarako hazten diren animaliak dira zezenak. Oilaskoak ere jateko hazten ditugu.



Aitor

Langabetua

Zezen eta animalien tratu txarren aurka nago, erabat. Gaizki iruditzen zait diru publikoarekin ordaintzea hori guztia. Zezenzaleek ordaindu beharko lukete, hala nahi balute.



Lidia

Etxe langilea

Oso jende gutxi erakartzen dute zezenketek. Beste gauza batzuk finantzatu beharko lirakeela uste dut nik. Animalien aurkako tratu txar mota bat dira zezenketak niretzako.



Josu

Biltegi langilea

Ez zaizkit zezenketak gustatzen, baina ez nago debekatzen alde: nahi duena joan dadila. Zezenketak gustuko dituen jendea badago, eskubidea dute diru-laguntzak eskatzeko.

"zezena maite du toreroak,
ezpata du hartarako..."



"...ezinbestean hil egin zuen, baina berea zelako!"
—CORRADO REU CHENEZ JARRIYAL—
(BI BALA)

2017/05/19
Aimar



GALDERA

Zezenketak egitearen alde edo aurka zaude?

erreportajea

Etorkinek integratzeko arazoak dituzte? Atzerritarrek ikasketa maila murrizten dute? Diru-laguntzak jasotzeko erraztasunak dituzte? Kalean bolo-bolo dabiltzan usteak zalantzan jarri dituzte Amurrioko eta Laudioko Zurrumurrueen aurkako taldeek. Ekainaren 17an aurreiritziak deuseztatzeko arrazoiak azalera tuko dituzte herriko plazetan hainbat ekimenen bidez.



Zurrumurruei aurre egiteko tailerrak egin dituzte Amurrión eta Laudioñ. Sarea osatuta, afera jendarteratzea izango dute helburu. **Iban Pagalday**

Kulturak josteko zurrumurrueen aurkako sareak sortzeari ekin diote



Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Nork du integratzeko zailtasuna? Markel Sabaterrek argi du: "Guk ere ez dugu erraztasunik jartzen beste kulturekin erlazionatzeko". Zurrumurruek ditu arrazakeriaren lehen sintomatizat, "komunitate batzuen kontra egiteko erabiltzen dira".

Kultur aniztasuna da nagusi Aiaraldean, 50 herrialde baino gehiagoko jendea bizi da. "Gure esku dago normalizatzea. Horretarako ezinbestekoa da aurreiritziak kendu eta kulturekin erlazionatzen saiatzea. Hori egin ezik, ezberdintasunak mantenduko dira", dio Sa-

baterrek. Aurreiritziei nola aurre egin ikasteko joan zen zurrumurrueen aurkako tailerrean: "Gazteon artean oso gutxi lantzen da kultur aniztasuna. Orokorrean, euskaldunak alde batetik gabiltza, eta beste kultura batzuetakoak aparte". Aferrari heltzeko tailerrak eskaini ditu Laudioñ eta Amurrión CEAR-Euskadik.

"Getifikazioa"

Ghettoak sortzea da arazoa, Sabaterren ustez: "Egia da ghettoak daudela, baina gu ere beste bat gara. Gure esparrua dugu, eta hortik ateratzea asko kostatzen zaigu. Oso erraza da etorri berriei botatzea errua arazoaren parte gu ere bagarela konturatu ordez. Zerbait egiten al

dugu aurrerapausoa emateko?". Hori dela eta, alde biko prozesuaren beharra nabarmendu du, konfiantza sortze aldera. "Soilik gure inguruari begiratzeko; esaterako, herri bazkarietan haragia bakarrik jarriz gero, arabiarrek baztertzen ari gara".

Itzi Azumendik ere hartu du parte zurrumurrueen aurkako Laudioko sarean. Gurasoa izaki, kezka aitortu du: 3 seme alaba ditu eta ez dute harremanik atzerritarrekin. Ikastetxeko pasarte bat ekarri du gogora: "Ume batek haur marokoar bati honakoa esan zion: marokoar alua, guri lana kentzeko zatozte". Esaldiak "helduen estiloa" duela iritzita, ezinbestekoa deritza guraso eta haurre-

Zurrumurrueen aurkako tailerrak egin dituzte Laudioñ eta Amurrión. Ekainaren 17an egingo dituzte ekimenak herriko plazetan

kin kultur artekotasuna lantzeari: "Gure umeak beste kultura batzuekin bizi dira, guk egin behar dugu harreman hori sustatzeko ahalegina. Auzokideak gara, ez? Herri berean bizi bagara elkarren berri izatea gutxienezkoa da". Jendartea kultur-anizta izateko babesguneen beharraz mintzo da Azumendi, legeak zein gizarteak traba mordoak jartzen baitituzte. "Etorkinei ez diegu ondo begiratzeko orokorrean, gauza asko ditugu barneratuta, matxismoarekin bezala".

Ekainaren 17an, zurrumurrueen aurkako dinamika egingo dituzte Amurrión zein Laudioñ. Susana Saguer katalanak aurreratu duenez, mugako egoerak azalera tuko dituz-

ESTRATEGIAK

Ongizate politiken ingurukoak dira etorri-berrien kontrako zurrumurru gehienak. Iritzi publikoan kulturen gutxiespenari aurre egiteko komunikazio estrategiak landu dituzte tailerretan

EKIMENAK

Kultur aniztasuna sustatzeko hainbat dinamika egin da eskualdean: Arrankudiagako "Herri bat, hamaika jatorri" jaia edo "Laudion bizi gara" eguna, besteak beste

HEZKUNTZA

Amurrioko eta Laudioko hainbat ikastetxeetan kulturartekotasuna lantzeko muralak egin dituzte Guraso Elkarteek

GAZTERIA

Kulturen arteko komunikazioa eta ezagutza sustatzearen beharra azaleratu dute zurrumurruren aurkako sareetan parte hartu duten gazteek

te umoretik: "Aldai plaza muga gune bilakatuko dugu. Mozorro-tu egingo gara herritarrei etorri-berriek bizi dituzten egoerak ikustarazteko". Jolasa proposatuko diete, aurreiritziez jabetu eta egoerei buelta emateko. 12:00etan izango da Laudioko hitzordua Aldai plazan. Amurriokoa, berriz, arratsaldean izango da, 17:00etan, hain zuzen.

Toñi Bordagarai eta Mertxe Azkarraga ari dira, besteak beste, Amurrioko lan-taldean parte hartzen. "Koloretako sarea irudikatuko dugu aulkiekin. Hiru aurkezle egongo dira, euskaraz, gaztelaraz eta arabieraz hitz egingo dute. Lehendabizi zurrumurruek azalduko ditugu, eta gero horiek deuseztatzeke arrazoiak. Esaterako, lana kentzera etorri direla aipatzean, atzerritar batek zenbat aldiz eskatu duen lana kontatuko du", adierazi dute.

Errotuta

Zurrumurruek oso errotuta daude, Bordagarairen esanetan: "Aurrekoan batek sahararrei tximeletak deitzen zirela esan zidan, oihalak daramatzatela. Nik horrelakoetan asko gustatzen zaizkidala erantzuten dut, Amurriok horrela kolore gehiago duela".

Udalak pisuak ordaintzen dizkiela etorkinei, janaria doan ematen zaiela... Luzea da zenbait kulturen aurkako usteen zerrenda. Toñi Bordagarai oraintsu Amurrioko irakurritako iragarria aipatu du: "Pertsona autoktonoa eskatzen zuten orduka lan egiteko. Paperaren gainean norbaitek 'zein herrialdetakoa?' idatzi zuen. Xenofobia asko dago".

Irakaslea da Mertxe Azkarraga. Ohikoa zaio ikas-geletan kultura ugari jendea egotea, "baina oso gauza mingarriak en-

tzuten dira. Gazteek telefonoak ikustean egoera ekonomikoarekin parekatzen dute gailua. Kallean eskean dabilzane buruz, mozkortzeko nahi dutela dirua esaten dute". Zentzu horretan, urrats asko eman behar direla pentsatzen du: "Duela urte batzuk diru-laguntzak zeuden, eta irakasle batzuek hartzen zuten gaian sakontzeko ardura. Murrizketekin, ordea, bertan beherra geratu zen". Hankamotz dago Azkarragarentzat oraindik laguntza sistema: orain arte, alor ekonomikoari erreparatu zaio, baina sozialari ez. Haatik, ikastetxe askotan abiatu dituzte horretarako dinamikak. Laudioko Lamuza edo Amurrioko Lucas Rey dira horietako bi. Maite Rodrigez eta Rocio Serrano Lamuzako Guraso Elkarteke kideen aburuz, eskolaz kanpo ere egin behar da lan: "Gezurra da etorri-berriek ikasketa maila jaitzen dutela, adibidez. Edo, euskaraz ez dakitela". Hori dela eta, hiru urte daramatzate ikastetxean kultur artekotasuna lantzen: bideoklipak, muralak eta abar gauzatu dituzte parte hartzea sustatuta.

Tailerretan ikasi dituzte zurrumurruei aurre egiteko komunikazio estrategiak. "Non-dik atera duzu informazioa? Kontrastatu duzu? Aurreiritziak deuseztatzea erraza da, baina lasaitasunez hitz egitea da gakoa", adierazi du Bordagarai. Dena den, Azkarragak uste du bi edo hiru belaunaldi barru ikuspegia zeharo aldatuko dela: "Kultur aniztasuna normalizat hartuko da". Markel Sabaterrek ere badu esperantza: "Geroz eta gazte gehiagok jotzen dute atzerrira, eta ohikoak dira kulturen arteko harremanak". Partaideen ondorioa, argia da: muga bakarria jendearen buruetan dago.

“Lehen larrutik egokitu zait hainbat gauza entzutea”



INTI MALDONADOK (Ekuador, 1993)
GERTUTIK BIZI DITU ZURRUMURRUAK.

Zurrumurruren aurkako sarean hartu duzu parte...

Lagun batek bidali zidan deialdia eta jakin-mina piztu zitzaidan; horregatik joan nintzen. Tamalez, ezin izan naiz saio guztietara joan. Saio batean zurrumurruren kontra zer egin zitekeen landu genuen, eta bestean ekin-tzak nola gauzatu.

Berdintasunaz hitz egiten da sarri. Kulturei dagokienez, nola ikusten duzu egoera?

Betidanik iruditu zait hemen-go eta kanpoko jendearen artean ez dagoela berdintasunik. Jendeak etorkinekiko ez-ezagutza handia du nire ustez. Nik pertsonalki bizi izan dut, lehen larrutik egokitu zait hainbat gauza entzutea. Horregatik, oso garrantzitsua iruditzen zait sortzea errefuxiatuen egoera, etorri-berriena... azalertzeko dinamikak.

Estereotipoek, aurreiritziek... eragin handia dute jendartean, ezta?

Niri egunerokoan ez didate arazorik suposatzen, ohitu egin naiz.

Nolako zurrumurruek gailentzen dira herritarren artean?

Ni Ekuadorrekoa naiz, eta askotan entzun behar izan dut oso itxiak garela, ez dugula hemengo jendearekin apenas harremanik. Oso erraza da hori esatea, bereziki, ikuspegi ekonomiko edo laborala aintzat hartzen ez bada: Ekuadorreko gehienek merkatuetan egiten dute lan astebururo, beraz, ekintza sozialetan zaila da parte hartzea. Diru-sarrerak Bermatzeko Errentaren inguruan ere zurrumurrue-

asko daude. Edo, hezkuntza alorrean. Euskararekin ere bai: batzuek uste dute etorkinek ezin dugula euskaraz hitz egin, ez dugula ikasteko gaitasunik. Etorri-berri guztiek ez dituzte diru-laguntzak jasotzen.

Autokritika egitea beharrezkoa al da?

Bai. Esaterako, niri iruditzen zait zurrumurruren aurkako sarean, edo kulturartekotasuna bultzatzeko ekintzetan, oso kultura gutxi elkartzen garela. Boluntarioki lan egin dudana proiektu gehienetan beti izan naiz atzerritar bakarra. Zurrumurruren aurkako taldean sahararrak topatzea espero nuen. Kulturen arabera, ezberdina da bizi estila... Ez dakit interes edo ezagutza ezagatik den.

Zure ustez, nola landu behar-ko litzateke kultur aniztasuna?

Era askotan. Adibidez, ni ikastolara joan nintzenean kanpoko bakarra nintzen. Askok nabaritzen da harremanak egiteko orduan, umeek txikitatit badute hartu-emaña kultura ezberdinetako pertsonekin, normalizat hartzen dute egoera, ez gara "arraroak". Kulturartekotasunak gauza positibo asko ditu.

Kulturartekotasunak gauza positibo asko dituela diozu. Adibidez?

Bizitzeko eta pentsatzeko modu ezberdinak ezagutzeko aukera, musika, gastronomia... Oztopoak ere baditu, balioak berdinak ez izategatik gutxiestea, esate baterako. Kultura guztiak dira onak, ez da bat bestea baino hobea.



Iban Pagalday

erreportajea

“Kulturak gutxiesteko helburua dute zurrumurruek”



PALOMA GUTIERREZ (Cadiz, 1979) SOZIOLOGOA DA. AMURRIKO ETA LAUDIOKO ZURRUMURRUEN AURKAKO SAREAK GIDATU DITU. JATORRI EZBERDINETAKO BIZILAGUNEN ELKARBIZITZA SENDOTZEKO GAKOAK AZALDU DITU.



Testua eta argazkia
Izar Mendiguren Cosgaya

Laudion eta Amurrion zurrumurruren aurkako taldeak gidatzen aritu zara. Nolatan?

Cear-Euskadi erakundetik Arabako Foru Aldundia-rekin batera sustatu dugu proiektua.

Egitasmoak Bartzelonan du jatorria, kulturen kontrako zurrumurru eta aurreiritziei aurre egiteko dinamika proposatu baitzuten bertan: pertsonak trebatu eta informatzea, problematikari aurre egiteko agente aktibo bilaka daitezten.

Jende asko hurbildu da saioetara. Aniztasuna izan da nagusi partaideen artean, bai adinari dagokionez eta baita sexuari edo jatorriari erreparatuta ere. Hainbat kulturetako lagunak bildu dira, ikastetxeetako Guraso Elkarteetako kideak, gazteak, udal langileak, politikariak...

“ErreAkzio” positiboak bilatu dituzue. Egungo bizimoduarekin, zelan lor liteke hori?

Batetik zurrumurruren kontrako tailerrak egin ditugu, aurreiritzi xenofoboaren inguruko oinarri teorikoa lantzeko eta komunikazio estrategiak ikasteko.

Asmoa da norbere herrian zurrumurruren kontrako agentea bihurtzea. Zentzu horretan, Laudion eta Amurrion osatutako sareek ekintza bikoitza egingo dute ekainaren 17an, “Zurrumurruren aurkako bizilagunak” lemapean. Arabako zenbait herritan ere gauzatu dute. Eremu ugariatako pertsonak hartu dute parte, izan ere, bizilagunekin oso konprometitua dagoen jendea dago oraindik ere, zorionez.

Zergatik dira garrantzitsuak era honetako ekimenak?

Zurrumurru xenofoboek gure bizilagunen duintasunaren aurka egiten dute, eta horiek eteteko ezinbestekoak dira estrategiak.

Iritzi zapaltzaileen aurrean zutitzeko ordua da, herritarrak aktibatu eta uste ustelen aurka inplikatzekoa. Horretarako ezinbestekoa da prestakuntza. Horregatik, tailer hauen bidez zurrumurruek deseraikitzeke emozio eta arrazoiei heltzen diegu. Era honetan, besteak beste, kultur aniztasuna haserretu gabe defendatzeko gomendioak zabaldu ditugu, jakin baitakigu oinarrizko giza eskubideak kaltetzen dituztela zurrumurruek.

Emozioak sortzea eta arrazoiak ematea da gakoa, beraz.

Bi elementu horiek osatzen dituzte zurrumurru xenofoboak, baita bakoitzaren bizitza ere. Efektu biderkatzailea bilatzen dugu, herritarrak izatea eremu honetako adituak eta jendartea sentsibilizatuko dutenak, kulturen arteko elkarbizitza eta kohesio soziala areagotzeko.

Zeintzuk dira jendarrean errotuta dauden zurrumurru nagusienak?

Zurrumurru orokorren artean nagusia da etorkinek krisiaren errua dutenarena. Diru-kutxa publikoa xahutzea leporatzen diete, gizarte laguntzez abusatzea, edo elikadura banaketa zerbitzuez. Batzuk uste dute lana kentzera etorri direla, lan gutxi dagoela argudiatuta. Beste askok, delinkuentziarekin lotzen dituzte etorri-berriak. Kulturak gutxiesteko helburua dute zurrumurruek. Denetarik entzuten da: 200 euro jasotzen dutela emakume musulmanek islamiar oihala eramateagatik, Latinoamerikako emakumeek berdintasunerako bidea oztopatzen dutela etxebizitza eta zaintza eremuetan ohitura matxistak onartzeagatik... Zentzugabeak dira uste gehienak, txinatar komunitatearen kontrako kasu:

bada jendea uste duena kaleetan ez dagoela agure txinatarik jatetxeetan jateko zerbitzatzen dituztelako.

Dudarik gabe, negatiboki eragiten dute zurrumurru guztiek, eta gainera, informazio faltsua dira; kultura gutxitu zein jatorri ezberdinetako pertsonen kontra egiteko gezurrak.

Hezkuntza alorrean, zer egin liteke egoerari buelta emateko?

Eskolaz kanpo egin daitekeen berdina, kulturen arteko elkarbizitza guztion zeregina da, horregatik dira garrantzitsuak herritarren sentsibilizazioa eta kontzientziazioa; baita gizarte heziketa ere. Tailerren bidez zurrumurruei aurre egiteko estrategiak jendarteratu ditugu Aiarako Kuadrillan.

Eta sozialki? Zer egin dezakegu herritarrok gure egunerokoan?

Lehenik eta behin informatzea, eta ez barneratzea gure bizilagunen inguruan kalean dauden zurrumurru xenofoboak. Usteak zabaldu baino lehenago informazioa benetakoa den galdetzea da lehen pausoa, zein den informazio iturria konturatzea, berau esateagatik ea norbait minduko dugun pentsatzea, zer lortzen den horrekin jakitea...

Egungo politikak kultura gutxituei mesede ala kalte, zer egiten diete? Zein pauso falta da ematea?

Nire ustez luzea da oraindik egitekoen zerrenda edo bidea. Gobernuak inbertsio soziala murrizten jarraitzen dute, Diru Sarrera Barnetzeko Errentarekin (RGI) bezala. Krisi garaian “bakoitzak ahal duena egin dezala” izaten da esaldi nagusia, horregatik jotzen da pertsonarik ahulenak errudun bilakatzera; gorago daudenei begiratu ordez, ustelkeria kasuak eguneroko ogia direnean.

AUTO ZERBITZUEN GIDA

Autoaren berrikusketa, maleta prestatzea bezain garrantzitsua

Udan ugarritu eta asaldatzen den zerbitu badago: errepideetako trafikoa. Aiaraldeko eta Euskal Herriko milaka familiek hartzen dute autoa, oporrak eta eguraldi ona profitaturik. Tamalez, alde txarra ere badu uda garaiak: auto istripu kopurua handitu egiten da datuen arabera, eta joeran ez da aldaketarik nabari.

Horregatik da garrantzitsua bidaiaren aurretik autoaren errebisioa egitea, murrizteko matxura izateko aukera. Horrelako ikusketak eskaintzen dituzten tailer ugari daude Aiaraldean; eskumaldeen topatu daitezke horietako batzuen kontaktuak. Zer berrikusi behar da, ordea, errepidera atera aurretik? Adituek hainbat elementu konprobatzea gomendatzen dute. Likidoen maila da horietako bat: frenoena, olioarena eta hozgarriarena.

Halaber, gomendagarria da pneumatikoak egoera onean daukela ziurtatzea, bidaiaren "izorrotzea" ekiditeko. Zentzu horretan, legearen arabera, 1,6 milimetrokora izan behar da gurpilaren marrazkiaren gutxienezko sakonera. Euro bateko txapon bat baliatuta konprobatu daiteke baldintza hori betetzen duten edo ez: txanpona gurpilaren marrazkiko zirrikietan sartuta. Txanponaren urte-koloreko zatia barruraino sartzen ez bada, gurpilak aldatu behar dira.

Era berean, gurpilaren presioa begiratzeari garrantzia eman behar zaio, profesionalen esanetan. Ez soilik segurtasunaren aldetik, baita gastuaren aldetik ere: behar duten presioa baino gutxiago duten pneumatikoak ez dira ondo higitzen, eta gasolinaren kontsumoa handiagotzea dakar horrek.

Beharrezkoa da baita erreferen-

gerazio sistemak ondo funtzionatzeko duen ikustea, kontuan hartuta udan autoek tenperatura altuak jasan behar dituztela eta motorra gehiegi berotzea ekar dezakeela erreferentzia sistemak ondo ez funtzionatzeko. Hortaz gain, aire girotuaren egoerari erreparatzea beharrezkoa da, ondo dabilela ziurtatzeko.

Bidaietarako aholkuak

Badaude aintzat hartu beharreko hainbat kontu ere, udan autoz bidaiatu luzeak egiteko behintzat. Horietako bat da 3-4 orduko geldialdia egitea, atsedena hartu distraziorik ez izateko. Otordu astunak ekidin behar direla ere diote adituek, gidatzerako orduan logura saihesteko.

Oporretatik bueltan ere

Itzultzean ere komeni da ibilgailua tailerrera eramatea, eragindako desgastaren eragina ikusteko. Gurpilak dira udako bidaiaren luzeetan gehien sufritzen duten elementuak, distantziagatik zein garraiatutako pisuagatik.

Kostaldera hurbilduz gero, ez ahaztu motorra berrikustea, hondartzako area izan dezakete gurpilek barnean eta. Ildo beretik, gomendagarria da baita likidoen maila egokia konprobatzea, ibilbide luzeen ondorioz jaitsi egin daiteke eta.

Haizetako-garbigailuak mar-txan jartzea da behatzeko beste elementuetako bat, baliteke garbigailuetako gomak gogortzea eta, udako bero zein tenperatura altuen ondorioz. Profesionalen arabera, minutu gutxi behar dira aipatutako gauza guztiak berrikusteko, eta oporren erdian ezusteko bat aurrezteko balio dezakete.

GARAJEAK

MENOYO MOTOR S.L
Multimarka autoen konponketa eta salmenta
Pneumatikoak (NT2)

Larribarri Industrialdea 4, Amurrio 945 39 37 26

Talleres Molegar S.C.
Multimarka autoen konponketa

Larribarri Industrialdea 7, Amurrio · 945 89 05 75 · molegar@gmail.com

Talleres Tomás Ugarte, S.L.

- Mekanika eta elektrizitatea
- Gas-analizatzailea
- Direkzio lerrotatzea
- Pre-IAT
- Olio aldaketak
- Pneumatiko zerbitzuak
- Txapa
- Margoketa

Zankueta Industrialdea (Amurrio) 945 89 21 42 / 630 13 33 26 tallerestomasugarte@gmail.com www.adeada.com/asociados.asp

NERBIOI GARAIAIN ZERBITZU OFIZIALA

HYUNDAI

Eska S.L.
eskatailler@gmail.com

Industrialdea, Pab. 4-1 LAUDIO 94 672 81 01

Talleres José Luis Fuentes, s.l.

CO-aren diagnosi eta frogatzea · Pre-IAT
Elektrizitatea eta autoen mekanika
Direkzio lerrotatzea
Olio aldaketa eta kolpeztatzea

Goikoplaza 24, Audio 94 672 29 50

Mekanika eta elektronika

ARP
autoreparaciones Pinedo

Maskuribai 12, Amurrio 945 89 17 64

NEUMATIKOAK

ARC LAUDIO
Mikel Cortés

Pneumatikoak
auto eta motoentzako
Autoen Mekanika

"Zure autorako kalitate, zerbitzu eta arreta berezitu"

Arantzar poligonoa 1, Audio 94 407 58 11 / 626 21 97 65 arc.ludio@gmail.com

neumaticos CAMARERO, S.L.

- Marka guztietako neumatikoak
- Mekanika arina
- Motor mekanika: Lozagia Banaketa uhala Kulata-juntura ...

Zumalakarregi etorbidea 66, Audio 94 672 06 81

Carrocerías ADARRAGA
Ibai - Cefe

- Txapa / Pintura
- Mekanika arina
- Beirak
- Pneumatikoak
- Balazta / Ihes-hodiak
- Ibilgailuen garraioak
- Beiren tindatzea

Maskuribai Industrialdea 1, Pab. 14 (Amurrio) 945 89 37 00 679 068 350 / 628 622 978

EUROMASTER TALLERES PICAZA

MEKANIKA

- Banaketa uhala & Urponpa
- Lozagiak
- Abiadura-kaxen ordezkapena
- Balazta-pastilla
- Disko-balazta
- Silentblock
- Transmisio hauspoa
- Palier puntak
- Palierrak
- Foku leunketa
- Matrikulak

OLIOA

- Olio eta iragazkiak
- Multi marka mantentze-lana
- Likido-aldaketa

BALAZTAK

- Pastillak & diskoak

DIAGNOSIA

- BKT diagnosis

ESEKIDURA

- Motelgailuak
- Errotulak
- Esekidura besoak

ISILAK

- Ihes lerroak

PNEUMATIKOAK

- Marka guztiak

AUTO GARBIKETAK

La Isla auzoa z/g, Arakaldo 94 672 74 81 - 656 701 399

GARBIKETAK

Garbiplus auto

AUTO GARBIKETA
GARDEA KALEA 4, Audio 629 34 12 70 www.garbiplus.com

TAPIZERIA, HIGIENIZATZEA, ARGIEI LEUNKETA, GARBIKETA ...



Tremenda jauria musika taldea

Eskualdeko eragile ugari

Amurrioko Gazte Asanbladaren Jaian

Egitarau oparoa prestatu du Amurrioko Gazte Asanbladak datorren larunbaterako (ekainak 10). "Haritik harira, hamar urte badira" lelopean antolatuta dute eguna. Izan ere, hamar urte betetzen ditu aurtengo Gazte Asanbladak. Goizeko hamarretan jaurtik da hasiera suzuria, eta tortila txapelketari ekingo zaio jarraian. Lehiaketan parte hartu nahi duten taldeekainaren 8a (osteguna) baino lehen eman beharko dute izena Txokogorri tabernan, euro baten truke. Parte hartzaile bakoitzak bere ma-

terial eta osagai propioak eraman beharko ditu. 11:30etik aurrera haurrentzako eskaintza nagusituko da: tailerrek eta puzgarriak egongo dira, Ane Gebara ipuin kontalariaekin batera. Saskibaloian jokatzeko aukera ere izango dute umeez, Zaroabe taldearen eskutik.

Hamabietan hasiko da 3x3 Futbol txapelketa. Partaideek 11:00etan eman beharko dute izena Juan Urrutia plazan, 3 euro ordainduta. Sokatira norgehiagoka ikusteko aukera egongo da baita ere, Artziniiegako Bizindar taldea-

ren eskutik. 14:30ean izango da bazkaria San Anton plazan. Txokogorri lortu daitezke tiktak, 10 euroren truke. Mus Txapelketa eta bertso-hopemanaldia egongo dira ostean, Izar Mendiguren, Paula Amilburu eta Ander Solozabalen eskutik. 19:00etan kalejira abiatuko da Sakatu elektrotxaragarekin eta ondoren ekitaldia egongo da, 21:30ean. 22:00etan hasiko da gaueko eskaintza: Astarre, Placton, Tremenda jauria eta Batek daki taldeak igoko dira oholtzara.

JAIAK

06.09 Ostirala
LAUDIO
HERRIEN JAIALDIA
19:00 // Txosnen irekiera
20:30 // Celemin runba taldearen emanaldia
Aldai Plaza

06.09 Ostirala
ARRANKUDIAGA-ZOLLO
KANPALEKUAREN 40.
URTEURRENA
20:00 // Otarkeoak
21:30 // Kontzertuak:
Matarrasa, Gorrotoz Haziak,
DJ Indio
Herriko plaza

06.09 Ostirala
BARANBIO
AHUNTZ EGUNA
20:00 // Solasaldia
21:30 // Parte
hartzaileentzako afaria
Garrastatxu

06.10 Larumbata
LAUDIO
HERRIEN JAIALDIA
11:00 // Txosnen irekiera
13:00 // Euskal dantzak
Itxarkundia taldearekin
13:30 // Txani Rodriguezen idazlearen pregoia
18:30 // Audio Wellness
Crew eta Audio Wellness
Kids taldeen dantza
emanaldia
21:00 // Amigos del Swing
Aldai Plaza

06.10 Larumbata
AMURRIO
GAZTE ASANBLADAREN X.
URTEURRENA
Txapelketak, herri bazkaria,
kontzertuak...
Herria

06.11 Igandea
BARANBIO
AHUNTZ EGUNA
8:15 // Ahuntzen XI.
Lehiaketa
8:15 // Ahuntz azlenden feria (arraza guztiak)
8:00 // II. Garrastatxuko Mendi Martxa
12:00 // Meza Garrastatxuko Santutegian
13:30 // Akerren pisaketa
14:15 // Azpigorri eta azpizuri ahuntzen XI.
Lehiaketaren sari-banaketa
14:45 // Herri bazkaria
17:00 // Erromeria
Garrastatxu

06.12 Astelehena
17:30 LAUDIO
DEPRESIOA
Erabilera antitzeko aretoa

06.12 Astelehena
18:00 ARETA
PENTSIOAK
Santa Ana Nagusien egoitza

06.15 Osteguna
19:00 URDUÑA
AGROEKOLOGIA FOROA
Alondegia

KIROLA

06.10 Larumbata
9:00-21:00 LAUDIO
12 ORDU FUTBOLEAN
Lamuza Ikastetxea

06.11 Igandea
8:00 BARANBIO
II. ASKATASUN MENDI MARTXA
Garrastatxu

06.16 Ostirala
17:30 URDUÑA
EUSKARA PLAZARA
Herri kirolak
Foru Plaza

TAILERRAK

06.09 Ostirala
17:30 URDUÑA
EUSKARA PLAZARA
Zirkua eta malabareak
Foru Plaza

06.09 Ostirala
18:00 LAUDIO
KONPOSTAJE
TAILERRA
Kultur Etxea

06.09 Ostirala
18:00 MURGA
SUKALDARITZA
OSASUNGARRIAREN
V. TAILERRA
Gizarte Etxea

06.10 Larumbata
9:30-11:30 ARTZINIIEGA
KONPOSTAJE TAILERRA

40 urte bete ditu gazteen kanpamenduak



40 urte pasa dira Arrankudiaga-Zolloko gazteen kanpalekua lehenbiziko aldiz egin zenetik. Hori dela eta asteburu osoko plana prestatu dute herrian. Ostira-lean musika izango da nagusi, Matarra-sa, Gorrotoz Haziak eta DJ Indio taldeen kontzertuekin. Igandean, aldiz, goiza eta eguerdia hartuko du ospakizunak, merkatu solidarioarekin, kanpamenduko jolasekin, bazkariarekin eta bingoarekin.

Zirku italiarra

Laudion ikusgai



Laudio bisitatuko du zirku italiarrak ekaineko hirugarren asteburuan. Lau emanaldi eskainiko ditu guztira: hilaren 16an (ostirala) 19:00etan izango da lehena; biharamunean, larunbatean, bi aldiz taularatuko dira (18:00etan eta 20:00etan) eta 18an behin (18:00etan).

Sareren prezioa 10-15 euro artekoa izango da. 10 euro balioko ditu sarrera arruntak, eta 15 euro "Vip" guneak.

Zuk zeuk egin jardunaldia

Orbeko Etxean

"Zuk zeuk egizu" jardunaldia egingo dute Laudioko Gardea auzoko baserri okupatuan ekainaren 17an (larunbata).

Goizean hasiko da egitaraua, clown tailerrarekin. Bazkari beganoa egongo da gero, 15:00etan, hiru euroren truke. 17:00etan "osasunaren autogestio-ari" buruzko hitzaldia egongo da, Oroz-koko "Almaenverde" sendabelarrentaldearen eskutik.

Kontzertuekin emango zaio amaiera egunari: Igor Arzuaga, Ffist, Fiambre eta Hanged taldeekin.

Hori ez da izango Orbeko Etxean datozen asteetan egingo den ekintza bakarra. Egun bat lehenago (ekainak 16) "Laburmetrai gaubela" egingo dute, eta beste hainbat ekintza ari dira prestatzen etxe okupatuaren 16. urteurrena ospatzeko.

Txani Rodriguez pregoilari Herrien Jaialdian



Txani Rodriguez idazlea izango da Laudioko aurtengo Herrien Jaialdiaren pregoilari. Larunbatean irakurriko du pregoia, 13:30ean, baina egitaraua ostira-lean hasiko da txosnen irekierarekin eta Celemin runba taldearen kontzertuarekin. Aldai Plazan egingo dira programatutako ekintza guztiak, Laudioko etxe erregionalen eskutik. Larunbatean, Itxarkundia eta Audio Wellness dantza taldeen emanaldiak eta Amigos de swingen kontzertua egongo dira, besteak beste. Igan-de eguerdian, berriz, folklore jaialdia egongo da.



Hiru egunez luzatuko da Baranbioko ahuntz Eguna

Hiru egunez luzatuko da Baranbion Ahuntz Egunerako pres-tatutako egitaraua. Ostira-lean (ekainak 9) emango zaio hasie-ra. Solasaldia eta afaria egingo dira. Egun nagusia, ordea, igan-dea izango da. Goizeko zortzietatik aurrera egongo da ahuntz-azienden feria Garrantzatxuko ermitan. Azpigorri eta Azpizuri ahuntzen XI. Lehiaketa ere egingo da goizean, baita mendi ibi-laldia ere. Herri bazkariarekin eta erromeriarekin emango zaio amaiera egunari. Astelehenean, aldiz, meza egongo da ermitan.

06.11
Igandea
ARRANKUDIAGA-ZOLLO
UDALEKUEN 40.
URTEURRENA
11:00 // Merkatu solidarioa
12:30 // Haurrentzat jolasak
14:30 // Bazkaria
17:00 // Bingoa
Herriko plaza

06.11
Igandea
LAUDIO
HERRIEN JAIALDIA
11:00 // Txosnen irekiera
12:00 // Folklore jaialdia
Herriko Etxeen taldeekin
Herriko Plaza

MUSIKA

06.09
Ostirala
22:00 AMURRIO
KONTZERTUA
Mikel Urdangarin
(10 euro)
Burubio

06.10
Larunbata
20:30 OROZKO
KONTZERTUA
Sorozabal abesbatza
San Juan Eliza

06.10
Larunbata
20:30 OROZKO
KONTZERTUA
Zaldibarreko abesbatza
San Juan Eliza

06.17
Larunbata
17:30 LAUDIO
KONTZERTUA
Santa Luzia, Eskolania,
Arteon ta Ars Viva
San Juan Eliza

06.18
Igandea
20:00 LAUDIO
DANTZALDIA
Musika banda eta
Intxarkundia dantza taldea
Aldai Plaza

HITZALDIAK

06.08
Osteguna
18:00 LANTENO
ALDEZ AURREKO
BORONDATEAK
Eskola zaharra

Ekainaren 9a baino lehen eman
behar da izena
Udaletxea

06.10
Larunbata
12:00 OKONDO
KONPOSTAJE TAILERRA
Ekainaren 9a baino lehen eman
behar da izena
Eskola

UMEENTZAKO EKINTZAK

06.10
Larunbata
11:30-12:45 ARTZINIIEGA
ARTZIENITZIA
Sumendia
945396353 telefonoan eman

behar da izena
Etnografia museoa

06.13
Asteartea
17:30 ARTZINIIEGA
IPUIN TXIKIAK
"Elige el verde"
Udal liburutegia

06.17
Larunbata
11:30-12:45 ARTZINIIEGA
ARTZIENITZIA
Espazioak eta koloreak
Etnografia museoa

BESTEAK

06.15
Osteguna
12:30 URDUÑA
SARI BANAKETA
Zilarrezko perretxikoa
Turismo bulegoa

06.16
Ostirala
21:00 LAUDIO
LABURMETRAI GAUBELA
Proiekzioak eta pizzak
Orbeko Etxea

06.17
LARUNBATA
LAUDIO
"AITOR ETA BEÑAT"
ELKARTASUN EGUNA
14:30 // Bertso bazkaria
22:00 // Kontzertuak
Gaztetxean: Astarte, Ezberdin
Jacks, Don Nadies eta
Aiaraldeko Soinu Sistema
Gaztetxea

INFO +
aiaraldea.eus

Kultura



“Kaktusen arantzak baliatu ditut nire semearen autismoa azaltzeko”

Tengo autismo... mi amigo Poncho LIBURUA PLAZARATU DU **LUIS B. RODRIGUEZ IBERNIAK** (AMURRIO, 1975). BERE SEMEAK AUTISMOA NOLA BIZI DUEN AZALTZEN DU, ARAZO HORI DUEN KAKTUS BATEN ISTORIOA KONTATUTA.



Testua eta argazkia
Txabi Alvarado Bañares

Hau da zure lehengo liburua. Nola sortu zitzaizun idazteko grina?

Urte eta erdi eman dut proiektua garatzen. Komiki bat egin nuen hasieran, Aimarri -nire semeari- frustrazioa kudeatzen irakasteko.

Balio izan ziola ikustean, apur bat gehiago landu nituen pertsonaiak, Aimarrek klaseko kideei autismoa zer den irakatsi ziezaien. Autismoa duen ume bakoitza ezberdina da, norberak bere ezaugarriak ditu.

Aimarrek eskolara eraman zuen liburua, eta gainontzeko ikasleen aurrean irakurri zuen. Irakasleak esan zidan ume guztiak adi-adi egon zirela, ipuina asko gustatu zitzaizela eta Poncho (ipuinen protagonista) Aimar zela konturatu zirela.

Izan zuen harrera ikusita, formatu profesionalago batean plazaratzea erabaki nuen, eta Circulo Rojo argitaletxearekin jarri nintzen harremanetan. Liburua nik neuk editatu nuen, dirua nire poltsikotik jarrita. Ilustratzaile batekin ere kontaktatu nuen, marrazkiak modu txukunagoan egiteko.

Liburuaren 200 ale saldu zenituen astebetean.

Bai, ez nuen espero. 100 inguru saltzea espero nuen. Ikastetxe gehiagotara eraman dute, Aresketa Ikastolara edota Arrankudiagara kasu. Aimarren klasekide guztiak erosi dute liburua: lagunek, lagunak lagunak... Sekulako eragina izan du ahoz ahoko zabalpenak. Madrileko Unibertsitate Autonomora ere iritsi dira kopiak. Alerik gabe geratu naiz. Orain Amazon bidez eskuratu daiteke.

Zer kontatzen du liburuak?

Poncho izeneko kaktus baten istorioa kontatzen du. Arantzak ditu, kaktus guztiak bezala, baina bere arantzak luzeagoak dira, zailtasun gehiago ditu. Arantzak baliatzen ditut autismoa irudikatzen. Autismoa duten umeek badituzte sentimenduak, baina zailtasunak dituzte horiek adierazteko. Badaude ipuinarekin negar egin duten gurasoak, oso istorio gizatiarra baita, bizitza bezalakoa.

Klaseko haur bati Ponchorekin egun bat igarotzea egokitzen zaio. Haurrak hasieran ez du nahi Ponchorekin egon, oso ume arraroa iruditzen zaiolako, baina bere eguneroko bizitza gertutik ikusten doan heinean gartzen du harremana berarekin, eta ulertu egiten du zer den gertatzen zaiona.

Egokia da gurasoentzat ere, ezta?

Gurasoek bizitzen dugun esperientzia ere jorratu dut liburuan. Medikura eginiko bisitak, logopedarekin izandako esperientziak... oso ipuin polita da, autismoa zer den jakiteko balio du.

Autismoa horren zabala izanda nolatan identifikatu dira horrenbeste ume autista Ponchoren figurarekin?

Jende asko sentitu da ipuinarekin identifikatuta bertan kontatzen dena honakoa delako: denok ditugula gure arantzak. Denok ditugu gure arazo propioak. Arantza horiek gainetik kentzean dago gakoa, arazoei konponbidea bilatzen saiatzean, horretarako estrategiak garatuaz.

Guri, “teorikoki”, ez zaigu kostatzen hori egitea, baina ume hauei asko kostatzen zaie. Horregatik irakatsi

behar zaie. Aimarrek lehen ez zuen apenas hitz egiten, oihukatzen mugatzen zen. Gaur egun, baina, kapaza da munduko guraso onena zarela esateko.

Sekulako garapena da hori. Hala ere, oraindik oso traketsa da harremanak garatzerako orduan. Parkean dagoenean beste umeek iraindu egiten dute, gauzak adierazteko beste modu bat duelako. Baina Aimarrek, autismoa izateaz gain, gaitasun handiak ditu. Besteak beste, gaitasun handia du memoria eta informazioa prozesatzeko. Edozein futbol talderen armarrria marraztu dezake, 3.000 ezkutu baino gehiago dakizki buruz. Hori ikustean umeak harrিতта geratzen dira, eta harreman bat sortzen da euren artean.

Nori dago zuzendua liburua?

Liburuak balio dezake ikastetxe bateko umeei autismoa zer den irakasteko. Modu horretan hobeto ulertu ahalko dituzte autismoa duten kideen portaerak. Marrazkiak oso garrantzitsuak dira horretarako. Gurasoei ere dago zuzendua. Seme-alaba autistak izan ditugun guraso askok ez genekien autismoa zertan zetzan. Horretarako balio dezake.

Baduzu beste libururen bat idazteko asmorik?

Ez. Proiektu puntuala izan da, prozesu luze baten ondorioa izan da, gainera. Apurka-apurka hazten joan da egitasmoa, eta bada geratzeko garaia. Salmenten bidez lortu dut liburua argitaratzeko jarritako dirua berreskuratzea. Hemendik aurrera eskuratzen dudak dirua Aimarren amets bat egi bihurtzeko baliatuko dut: Estatu Batuetako amerikar futboleko Baltimore Ravens ikustera joateko, Aimarren talde gustukoena baita, hori da nire xedea.

Urriari itzuliko da Begibistan jaialdia, lau sari gehiagorekin

Testua

Txabi Alvarado Bañares

Begibistan Zinema Astearen VII. edizioak badu zehaztuta data: urriaren 4tik 8ra egingo da. Hainbat berrikuntza izango du aurten.

Lau sari gehiago banatuko dituzte: Zuzendari onenarena, emakumezko aktore onenarena, gizezko antzezle onenarena eta banaketarena.

Proiektzioak Amurrio Antzokitik harago eramateko ahalegina ere egingo dute. Umeentzako emanaldiak antolatuko dituzte herriko ikastetxeetan, horretarako berariaz hautatutako filma laburrekin.

Urriaren 7an izango da jaialdiaren itxiera gala. Ohorezko txapela emango zaio bertan euskal zinemako pertsona esanguratsu bati. Iaz Leyre Berrocal aktore amurriarrak jaso zuen sa-



Iazko edizioako itxiera galaren irudi bat. Aiaraldea.eus

ria, bere ibilbide osoaren omenaldi gisa.

Parte hartzeko oinarriak

Halaber, lehiaketan parte hartzeko betebeharrak plazaratu dituzte. Euskal Herrian jaio edo bizi diren errealizadoreek aurkeztu ahal izango dituzte lanak, bi gehien jota.

Dena dela, filmak 2016an edo aurten ekoitziak izan beharko dira, eta 30 minutu iraun ahalko dute gehienez.

Bi atal ofizial izango ditu lehiaketak: Ofibistan (atal ofiziala) eta Nerbioibistan (Nerbioi Garaiko eta Aiaraldeko sortzaileen). Uztailaren 17a izango da ize-na emateko azken eguna.

Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdian egongo dira Pablo Ibarluzea, Mikel Ayllon eta Igor Arzuaga

Testua

Txabi Alvarado Bañares

Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdirako hautatu dute Laudioko Piszifaktoria antzerki-taldearen estreinako lana: "Tarkoidun zapata gorria".

Jaialdiko "Off Lokal" programarako aukeratu dute antzezlarina, beste bi obrekina batera.

Mikel Ayllon idazleak, Pablo Ibarluzea aktoreak eta Igor Arzuaga musikariak osatzen dute Piszifaktoria taldea, besteak beste.

Obraren sorkuntza prozesuan murgilduta daude hiru audioarrak une honetan. 20 minutuko iraupena izango du obrak; eta urriari taularatuko dute Gasteizko jaialdian.

Burubio Kultur Elkartearekin hitzarmena sinatu du Udalak

Testua

Izar Mendiguren Cosgaya

Amurrioko Udalak 5.000 euro emango dizkio urtero Burubio elkarteari musikagintza sustatzeko. Herriari egiten dion ekarpena interesgarria dela eta, udalaren eta elkartearen interesak bateratu dituzte. Hala, Buru-

biok herriko jaietarako kontzertuak proposatuko ditu, baita maketa lehiaketa antolatu ere.

Musika Eskolari ere bultzada emango diote, Burubioko hainbat espazio erabiliko baita eskolako entseguetarako. Bestalde, ikasturte amaierako grabaketa bertan egingo dute, elkartearen estudioan.

Gobe, etengabeko berrikuntzan murgildutako moda eskaintza zabala

PUBLIERREPORTAJEA

30 urte inguru daramatza Gobek moda munduan lanean. Denda berria ireki du Laudio zerbitzuak Aiaraldeko herritarrei eskaintzeko. Adin eta profil guztientzako arropak dituzte, etengabe berritzen direnak.

Gobek denda ireki berri du Laudioko Zumalakarregi etorbidean, Aiaraldea guztiko herritarrei zerbitzua eskaintzeko helburuarekin. Denda berria den arren, esperientzia ugari enpresa da Gobe, ia 30 urte baitarama modaren munduan murgilduta. Establezimendu txikia da, baina handia da eskaintzen duen arropa aldaera. Adin eta profil anitzentzako arropak topatu daitezke bertan, eta azaldu dutenez, neurri handien eskaintza zabala ere dute.

Behin baino gehiagotan bisitatzeko moduko txokoa da Goberena, hamabostero berritzen baitituzte bildumak, auzokideen unean uneko gustu eta tendentzietara moldatuz.

Kalitate-prezioa oreka

Puntako moda garestia dela esan ohi da, baina topiko hori apurtzen ahalegintzen dira Gobeko kideak, kalitatearen eta prezioaren arteko oreka bermatuz. Arduraduneez hitzetan, bezero fidelen sarea osatu ahal izan dute horrela: "Bezeroa gugana itzultzea dugu helburu".



Gobe

Zumalakarregi etorbidea, 38 -LAUDIO / 94 467 78 67

Begiradak

BEGO
GUILLÉN MONTERO

AIARALDEKO ARGAZKILARIEN TXOKOA



MAITE DUZUNARI ARGAZKIAK EGITEN

“Inoiz galdetu didate ea zergatik egiten ditudan argazkiak eta, batez ere, zergatik egiten dizkiedan soilik naturaren harremana duten elementuei. Arrazoia oso sinplea da: natura maite dudalako eta natura bizi dudalako”.

ARROKA FALTSUA: EZ DA DIRUENA

“Argazki honetan lehenengo begiradan ez genuke ezer arrarorik ikusiko, ez behintzat irudian azaltzen direnak arrokkak ez direla esaten ez badizuet. Itsas hondarra trinkotu egin da industriako hondakin isurketekin nahastean, eta arroka forma hartu du”.

EZUZTEKO ILUNABARRA

“Behin eta berriro bidaiatzen dugu gogoan dugun argazkia ateratzeko asmoz. Natura etengabe aldatzen ari da. Egun batean ikusten duzuna gerta daiteke hurrengo egunean ez topatzea. Kasu honetan, Madaria herriaren aldameneko landa batean ilunabarrak opari hau eskaini zidan, tximeletei argazkiak egiten nembilen egun batean, oso urrutira joan gabe eta ustekabe...”.



Amurrion jaio zen 1963an.

2001ean hasi zen argazkiak egiten, “interes artistikoagatik”. Egiptora eginiko bidaia batek bultzatu zuen argazkiak beste modu batean egitera ausartzera, eta orduz geroztik ez da gelditu.

Kostaldeko paisaien argazkiak egiten ditu batez ere. Ura da gehien baliatzen duen elementua. Errekak, ibaiak, putzuak... erretratatzera ere du gogoko.

SOS Himalaya erakundearekin elkarlanean ari da eta Espainiako Natura Argazkilarien Elkarte bidez ere bada. Kolaborazio puntualak izan ditu zenbait natura aldizkarirekin eta 2. saria eskuratu zuen Geoparkearen I. Argazki Lehiaketan.

Web-gunea: www.begoguillen.com

Bandoen arteko gerrak Aiaraldean



Historialaria **AKETZA MERINO**

Testua **IZAR MENDIGUREN COSGAYA** Ilustratzailea **AIMAR GUTIERREZ**

Erdi Aroan makina bat gerra egon ziren bandoen artean. Oinaztarrena eta Ganboatarrena da Euskal Herrian ezagunenetakoa bat, baina Aiaraldean ere egon zen familia eta baserrien arteko hamaika guda. Izan ere, aberastasun eta boterearen sinonimo ziren lur edo baserrien jabetzak.

XVI. mendeko idazkien arabera, nekazari xume eta xehe askoren bizileku zen harana. Historian atzera eginez, baina, aurrera egiteko modu ezberdinak gailendu dira: batzuk elkarrekin borrokatzea erabaki zuten, eta beste batzuek elkarren artean. Horren adibide dira idazkietan ageri diren familien arteko talkak, Anuncibay eta Ugarte sendien artekoak, kasu. Orozkoarrak ziren Anuncibaytarrek, eta Laudiokoak Ugartearrak. Dena dela, bandoen arteko borrokaldi ugari egon arren, zorionez, ez ziren familia guztiak mutur-joka bizi. Boteredunek zein baino zein izateko liskarretan ziharduten bitartean, bandoen arteko gerrak bukatzeko akordioak bilatzeari ekin zioten herritarrek.

Horren adierazle da 1490eko abuztuaren 8an Saraubeko Mahaian egin zuten ekitaldia. Bartzar Nagusia deitu zuten egun horretan Sarauben, eta goi kargudunak, Kontzejuak eta "escuderos fijosdalgos" (hala dago idatzia dokumentu ofizialetan) elkartu ziren.

Bilkuran hartu zuten parte, besteak beste, Pedro de Ayala jauntxoak -Gaztelako politikan oso garrantzitsua zenak- akordioak haraindikoa izan nahi baitzuen.

Aiaraldean bezala, Euskal Herrian zein Espainian areagotzen

ari ziren bandoen arteko gerrak, eta ondorioz neurriak proposatu zituzten Espainiako Errege Katolikoek. Herritar gehienak bat zetozen egoera baretzeko beharrarekin, gizateriaren etengabe-ko gehiegikeriaz nazkatuta baitzeuden.

Pedro de Ayala eta Aiara-ko Lurretako bizilagunen arteko akordioa izan zen Saraubeko hitzorduaren emaitza. Hitzarmenak indarkeria ekintzak debekatzen zituen, baita alderdikeria eta bandoen arteko planteamenduak ere. Manifestua sinatzean presente zeuden Martin Fernandez de Mendibil Ermandadeko alka-

tea, Juan Lopez de Sojo merinoa, Juan Ortiz de Saratxo eta Pedro Sanchez de Lexarzo prokuradoreak, Iñigo Fernandez de Ugarte eta haren semea, Iñigo Lopez de Retes, Lope Ortiz de Retes, Juan Lopez de Robina, Diego de Landa, Martin Lopez de Añes, Juan Sanchez de Aldama edo Juan Ortiz de Albiturri.

Pentsatzekoa denez, denek ez zuten begi onez hartu akordioa. Murgatarrek, esaterako, Perea eta Iburguen sendien aurka jotzen jarraitu zuten. Hari luzea du istorioak, 1328an bataila bat egon baitzen Landetan: Murgatarrek galtzaile izan ziren borrokaldian, eta

atakan hil zen Sancho izeneko herritar bat, Murgako elizaren aldamenean.

Ez zioten baina, horregatik, borrokatzeari utzi, Murgarrek Pe-rearrak eta Iburguendarrak garaitu zituzten eta. Hori dela eta, Perea-ko bandoen arteko gerrak abiatu aurretik alde egin zuten Aiara-ko lurretatik. Hala ere, bereak eta bi egin zituzten: 1350ean Diego Fernandez Ospina de Ugarte erail zuten Astobizako dorrean, Larrinbeko elizan. Aldi berean, Mendibil de Murga familiak Pedro Ospina akatu zuten, Maria-karra. Astobizako Ugartearrak ere sarri agertzen dira bandoen arte-


ko gerren dokumentuetan. Hortuño de Murga Lantenoarrak ere ez zuen errespetatu Saraubeko ituna, eta makina bat tirabira eragin zituen; Oribe-Salazarreko dorrean Tristan de Oribe eta haren hiru semeen aurkako erasoaldia, kasu. Ez zitzairen gerra debalde atera, ordea; haien etxea Aiara-ko jauntxoak suntsitu baitzuen.

Dena den, ez zen 1490eko hitzarmena izan hartu zen neurri bakarra. Urte batzuk lehenago eratu zen Arabako Ermandadea, 1463an, familia nagusien gehiegikeriak mugatzeko asmoz.

Laguntzarik izaten al zuten gerra-pizten zuten familiek? Jakina! Bandoen arteko gerrak aliantzen bidez egiten zituzten, Murgarrek, esaterako, Anuncibaytarren aliatuak ziren. Askotan izan zituzten etsai Mariakarrak; Laudioko Ospina de Ugartetarren sendi eta aliatuak. Hamaika heriotza eragin zituen elkarren arteko guda. Baina maitasuna ere zabaldu zuten, datuen arabera, Ugartetar bat Murgatar izatera igaro baitzen oinordekoarekin ezkondu ostean; eta, abizena aldatu zuten.

Luzea da Aiaraledoko "errebeldeen" zerrenda: Fernando Ochoa de Orue, Okondoko Juan de Ugarte, Hortuño de Ibarrola, Juan Ortiz de Ibarrola, Martin de Aldama eta Iñigo Martinez de Ugarte eskribauak...

Talkak talka eta kontuak kontu, Saraubeko itunari esker baretu ziren erasoaldiak. Hala, 1508eko Aiara-ko ordenantzetan aipatzen denez, familiek armak beharrean, lege bidea hartzeari ekin zioten. Horregatik, XV. mende amaieratik aurrera, garrantzia handia hartu zuten eskribauak, helegiteak eta alderdien eskaerak ugaritu baitziren.



KIROLA

Hamabi ordu igaroko dituzte Lamuza Ikastetxean futbolearen jolasten

“12 ordu futbolearen” ekimenaren edizio berria egingo dute larunbat honetan (ekainak 10) Lamuza Ikastetxean, herriko beste hainbat hezkuntza zentro eta eragilerekin elkarlanean: Latorroko Ikastetxea, Aretako Eskola, Audio Ikastola, La Milagrosa, Lamuzako ikasle ohiak, jokalarri ohiak eta herriko Guraso Elkarteak.

Goizeko bederatziatan hasiko da ekimena, eta hamabi ordu luzatuko da, gaueko bederatzi-tara arte.

Haurrentzako ginkana batekin ospatuko dute BTT Arespalditza taldearen X. urteurrena



Hamar urte beteko ditu BTT Arespalditza taldeak aurten. Hori ospatzeko ekimen berezia prestatu dute datorren ekainaren 25rako. Haurrentzako ginkana egingo dute.

Izen ematea doakoa izango da, baina aurrez egin beharko da www.bttrespalditza.com web-gunean. Hamabi urtetik beharako edozein umek hartu ahal izango du parte egitasmoan.

“Josito memoriala” egingo dute Laudion, bosgarrenez

Testua Txabi A. Bañares

Spiuk eta Kon Sports markaren sortzaileetako bat izan zen Jose Manuel Fernandez Arza laudioarra, “Josito” ezizenenagatik ezagunagoa. Bere omenez hasi zen Laudion Atletismo Kluba “Josito memoriala” antolatzen. Ekimen horren bosgarren edizioa egingo dute aurten, ekainaren 18an.

Helduen lasterketan hiru kategoria egongo dira: 40 urtetik beherakoena (Seniorrak), 40-50 urte bitartekoena (Helduak A) eta 50 urte baino gehiago dituztetena (Helduak B). 11:00etan hasiko da norgehiagoka Zumalakarregi etorbideetik. Hamar kilometro egin beharko dituzte parte hartzaileek.



Memorialaren iazko edizioko irudi bat. Aiaraldea.eus

Umeen lasterketa, aldiz, hiru txandatan banatuko da: 8-10 urte bitartekoak 10:30ean hasiko dira korrika, eta kilometro bat egingo dute. 11-13 urte bitartekoak 10:40an abiatuko dira, eta 2 kilometro egingo dituzte. “Txupete” kategoriakoak, aldiz, 10:50ean aterako dira eta 300 metro egingo dituzte. Izena emateko mezubatu behar da atletismo-laudio@euskalnet-net helbidera.

KIROL AZPIEGITURAK

Eskubaloia eta hockey kantxaren zorua aldatuko dute udan

Testua Aitor Aspuru Saez

85.884 euroko inbertsioa egingo du Laudion Udak 1.104 metro koadro ordezkatzeko: PVCko zorua jarriko du Granja Kiroldegiko eskubaloia eta hockey kantxan.

Udal Gobernu Batzordeak onartu zuen ostiralean eskubaloia eta hockey kantxaren zorua aldatzea. Izan ere, 30 urte inguru ditu zelaiak.

Saskibaloikoa ordezkatu dute dagoeneko.

Gauzak hala, 15 egun izango dituzte enpresek eskaintzak egiteko. Lanak gauzatzeko 3 aste emango dizkiete: uztailearen 25etik irailaren 1era bitartean, egun horietan egongo baita itxita kirol azpiegitura.

Hobekuntza hori ez ezik, gimnasioa lekuz mugituko dute -kafetegi ohira- eta kanpoko arotzeria ere konponduko dute.

Laudio Eskubaloia taldeko beteranoak, ligako bigarrenak



Laudioko eskubaloia taldeko beteranoek Bizkaiko Kopako 2. postua ekarri dute Barakaldotik. Iaz txapeldun izan baziren ere, aurten ezin izan dute garaipena eskuratu. 28-20 galdu zuten Leioaren aurka. Sailkapen bera erdietsi dute ligan. Klubak adierazi du pozik dardela eta denboraldi itzela egin dutela.

Euskara eta eskalada praktikatzeko aukera, igandean



Euskara eta eskalada uzartzeko aukera izango dute Laudion DBHko ikasleek igandean honetan, ekainaren 11n. Udako Euskara Arloak Kanpezura joateko busa antolatu du Mendiak eta Herriak elkartearekin, “Oxigenoa euskarari” egitasmoaren barruan. Autobusa 8:00etan aterako da Laudion Institutuko autobus geltokitik.

Auzoko mendiak zeharkatuko ditu San Joan Astobitzako XII. Krosak

Ekainaren 24an egingo da Laudion San Joan Astobitzako Krosaren XII. edizioa, jaien barnean. 20:00etan abiatuko da lasterketa San Joan Baselizaren paretik eta bederatzi kilometro egingo dituzte partaideek auzoko mendietatik. Hiru euro balioko du izen-emateak aurrez eginenez gero (0450015955 kontu korrontea baliatuta) eta egunean bertan 5€.

Garaipen ugari erdietsi zuten aiaraldearrek Euskal Herria-Eskoziako topaketan

Amurrioko Bañueta kiroldegian egin zen Euskal Herriko eta Eskoziako selekzioen arteko borrokaldia. Eskualdeko hainbat kirolari igo ziren ringera. Sara Barberoren lehen borroka izan zen, eta bere aurkaria garaitzea lortu zuen urduñarrak. “Esperientzia gogorra izan da, baina oso ona eta berezia”, adierazi zuen Barberok norgehiagokaren ostean. Eneko Aramendi orozkoarrak ez zuen zorte bera izan, bere borroka galdu egin baitzuen. Ibai Ruiz eta Julen Aldama amurriarrak, aldiz, garaile ateratu ziren. Aratz Garmendiak nulua egin zuen.

USHUAIA Dionisio Aldama, 20 (Geltokiaren aurrean) AMURRIO Tel. 945 89 08 41

Astearretik ostiralera: 9:30-19:00 (ez dugu eguerdian ixten) Larunbatak: 9:00-14:00etara

ILEAPAINDEGI MISTOA · EDERTASUNA · PERFUMERIA · OSAGARRIAK

Arazo kapilarrak? Ile-erortzea? Zolda, grasa edo azkura?

KONTSULTA eta DIAGNOSTIKOA DOHAINIK, MIKROKAMARA ERABILITA

Eskatu hitzordua **945 89 08 41**

BEHIN BETIKO DEPILAZIOA - SAUNA - SOLARIUMA

Ushuaia Peluqueria & Estética/Perfumeria

MENDIA

Ahantz Egunarekin bat egingo du Garrastatxuko Mendi Ibilaldiak

Testua Txabi A. Bañares

Datorren igandean (ekainak 11) egingo da euskal preso politikoaren aldeko Garrastatxuko Mendi Ibilaldia. Bi ibilbide egongo dira. Luzeak 25 kilometro izango ditu eta 8:00etan

abiatuko da Garrastatxuko basilatik. Laburrak, aldiz, 15,5 kilometro edukiko ditu eta ordu erdi beranduago hasiko da, toki beretik. Izena herrikrosa.eus atarian eman daiteke bost euroren truke. Egunean bertan zazpi euro balioko du inskripzioak.



“Beldurra beti dago hor, beharrezkoa da”

ANDIMA ERRAZTI GUARESTIK (Amurrio, 1993) URTEAK DARAMATZA SKATE PARKEETAN ALDAPA GORA ETA BEHERA, BMX BIZIKLETA MODALITATEAN.



Testua **Txabi Alvarado Bañares**
Argazkia **Andrés Varney**

BMX deritzon kirola praktikatzen duzu. Zertan datza?

BMXek *Bicycle Motocross* esan nahi du ingelesez. Motokrosean oinarrituta dagoen bizikleta modalitatea da. Hainbat modutan praktikatzen da: skate parkean, olinpiadetan egiten diren lasterketetan, lurrean dantzatzeko edota lurraren gainean saltoak egiten.

Non aritzen zara zu?

Skate parkeetan egoten naiz gehienbat. Bi modalitate daude: Street eta bowl. Azken hori praktikatzen dut batez ere. Askok gustatzen zaizkit lurrarekin eginiko aldapak, baina hemen inguruan ez dago asko.

Eskualdean ba al da nahikoa azpiegitura?

Kanpoan askoz skate parke hobek topatu daitezke. Urduñakoa nahiko zaharra da. Laudiokoa merke egin nahi izan zuten, eta ez zitzaizkion ondo ateratu.

Beste toki batzuetan apustu sendoa egin dute parke on bat jartzeko, Trapagaranen adibidez. Jende asko doa bertara. Gu astean hiru aldiz goaz gutxienez hara, Leioara edo Sopelara. Asteburuetan furgoneta hartu eta urrunago joaten gara: Irunera, Angelura, Iruñera... toki askotara.

Ni Urduñakora joaten naiz normalean. Hori da eskualdetik gogokoen dudana skate parkea. Udaletxeek horren aldeko apustua egin beharko lukete, nire ustez. Geroz eta zaletu gehiago ditu kirol honek. Amurrioko skate parkean ume asko aritzen dira, baina geroz eta gutxiago dira, maldak oso altuak baitira, eta ez dira hasiberrientzako egokiak. Bestelako guneak egongo balira askoz zaletasun gehiago egongo litzateke. Trapa-

garan da horren adibide. Amurriok haina biztanle ditu, eta parke on bat egin dute, horregatik dago egunero jendez lepo.

Nola hasi zinen zu?

Aitor Pinedo ezagutu nuen. BMXean aritzen zen, eta garai hartan ez zegoen kirol hori praktikatzen zuen jende askorik. Idoloa zen guretzat.

Gurasoei bizikleta bat eskatu nien orduan. Lagun ugari hasi ginen praktikatzen. Batzuk utzi egin dute, baina nik aurrera jarraitu dut, txikitatik asko gustatzen zaidalako.

Zerk bultzatu zaitu jarraitzera?

Apurka-apurka hobetzeak motibatuta egiten zaitu. Nik behar dudana bultzada trikimailuak ikasten, profesionalen bideoak ikusten, lagun berriak egiten... lortzen dut.

Zirrara sortzen duen bizikleta modalitatea da. Ezin naiz egon bi aste baino gehiago bizikletara igo gabe, menpekotasuna sortzen du!

Teknika, indarra... zer da kirol hau praktikatzeko gehien behar dena?

Txapelketetan hiru gauza hartzen dira kontuan: abiadura, hartzen duzun altuera eta estiloa.

Badituzte ni baino indartsuagoak diren lagunak, baina bizikletarekin salto egiteko gai ez direnak. Teknika da garrantzitsua, nire ustez. Pazientzia handia behar da, baina pixkanaka ikasi egiten da.

Txapelketa askotan parte hartu duzu?

Malagako txapelketa batean egon ginen duela hila-bete, Gasteizko lagun batzuekin. Baina ezin dugu maila altua izan hemengo skate parkeak ez direlako beste toki batzuetan dituztenak bezalakoak, mugatuta gaude.

Gasteizen urtean behin egiten dute txapelketa, baina ez da oso esanguratsua. Oso kirol librea da, bakoitza bere kontura doa.

Txapelketarik ez badago, zein da aurrera begira duzun helburua?

Teknika hobetzea. Inoiz ez zara gustura geratzen, beti nahi duzu gehiago hobetu, geroz eta gorago iritsi ahal izateko.

Youtuben hainbat bideo dituzu. Irudiak jasotzea ere kirolaren parte da?

Bai, beti daramagu kamara gainean, eta beti egiten ditugu bideo zein argazkiak. Sare sozialetara igotzen ditugu gero.

Bateko salto besteko maniobra, seguru kolpe bat baino gehiago jaso duzula...

Beldurra kentzen zaio kolpatzeari. Egunero jasotzen ditugu kolpeak, baina kirol hau horrelakoa da. Beldurra beti dago hor, beharrezkoa da. Gorputzak behar du adrenalina puntu hori, beti eskatzen digu geroz eta gehiago egitea.

Kirol arriskutsua da BMXa?

Ume txikiei beti esaten diet beharrezkoa dela kaskoa eramatea, arriskutsua izan daitekeelako buruan kolpatzea.

Badaude hankak eta ukondoak babesten dituztenak ere, baina pixka bat deserosoa izan daiteke soinean gauza asko eramatea. Kaskoa da beharrezkoena.

Zer esango zenieke frogatzera ausartzen diren lagunei?

Pazientzia eta konstantzia izateko. Kolpeak jasoko dituzte, baina gustatzen bazaie aurrera jarraituko dute.

KIROLA

TRAILA

Aretako Traila egingo dute uztailaren 23an, lehenengo aldiz



Trail baten artxibo irudia. Aiaraldea.eus

Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Aretako Jai Batzordeak aurreratu duenez, Traila antolatuko dute aurten lehendabiziko aldiz. Izan ere, berriki sortu dute Areta Trail taldea.

Lehendabiziko xehetasunak zabaldu dituzte dagoeneko. Ekimenari dagokionez, 12 kilometroko ibilbidea osatu beharko dute lasterkariak, eta 750 metroko desnibel positiboa izango du probak.

Aretako Kultur Etxetik aterako da lasterketa, aldamenen dagoen zubitik, hain zuzen. Antolatzaileek aurreratu dutenez, bi horniketako puntu egokituko

dituzte. Izena emateko epea zabalik dago, 5 euroren truke. Egunean bertan zortzi euro balioko du inskripzioak.

Gaur-gaurkoz Aretako Kultur Etxera, Amurrioko Ortu Kirokera eta Laudioko Olympus dendara jo daiteke horretarako. Hala ere, egunean bertan ere eman ahalko da izena, arduradunen hitzetan.

Ibilbidearen ezaugarriak

Ibilbideak Alpitxu, Goikogane eta Pagobakarra mendiak zeharkatuko ditu, besteak beste.

Zirkuituan barrena Aretako landak eta tontorrak kokatu dituzte. Aretako kultur etxe-

ko zubia izango da irteera puntua, eta Santa Anako zelaia gurutzatu ondoren; beste bi landa igaroko dituzte partaideek Pagobakarrara ailegatu baino lehen. Maddalena baseliza pasatuko dute gero, baita Goikogane mendia ere.

Azken txanpan landak izango dira berriro nagusi, baina Alpitxu gailurra zapaldu beharko dute kirolariek ere bai. Aretako Kultur Etxea izango da helmuga guinea.

Ekimenaren berri emateko Facebook orria erabiltzen ari dira antolatzaileak. Bertan dago ikusgai ibilbidearen nondik norakoak laburtzen dituen bideoa.

SARI BANAKETA

Ibone Sanchez izan da Alzarrate Sarien protagonista nagusia

Sari banaketa egin zuten Alzarrate Peñako kideek iragan larunbatean, Laudioalde Ikastetxeko areto nagusian. Ibone Sanchez atletak jaso zuen urteko kirolaririk onenaren aitortpena. Beste hainbat pertsona ere saritu zuten: Mikel Zaballa Azkoaga eta Brayan Stiven Garzon Cardona CD Laudioko jokalaria, Eladio Vicario del Tio ehiztari eta arrantzalea eta Antonio Aldama Tejada margolaria.



Laudioalde Ikastetxeko aretoan egin zuten ekitaldia. Juanfer Oleaga

IGERIKETA

Domina ugari etxera Euskadiko txapelketan

Testua **Igeriketa Laudio**

Pasa den asteko igandean, maiatzaren 28an, Mendizorroztako igerilekuan izan zen Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoen 36. edizioa. Ikusleztan betetako harmailak eta kanpoko tenperatura altuak berotu zuten igerilekuko giro ezin hobea.

Gure taldeko sei igerilari deitu zituzten Arabako selekzioarekin parte hartzera: Deiane Duarte, Borja Samaniego, Maier Salazar, Maria Resa, Ixone Mendiguren eta Igor Lombraña. Bakoitzak bi frogetan parte hartu zuen.

Emaitzak paregabeak izan ziren, ia denek euren denborak hobetu zituzten eta. Podium aldetik honakoak izan ziren emaitzak: Borja Samaniego 2 urrezko domina eskuratu zituen, Maier Salazarrek beste bi, Igor Lombrañak urrezko eta zilarrezko domina bana eta

Deiane Duartek 2 urrezko. Maria Resa laugarren geratu zen froga batean, eta bestean hirugarren postua eskura zuenean deskalifikatu egin zuten. Ixone Mendigurenek, ordea, taldeko txikiena izanda ere, 7. eta 9. postuak lortu zituen.

Erreleboetan 3 zilarrezko domina (emakumezkoen eta gizonezkoen 4x100 estiloan eta emakumezkoen 4x100 librean) eta brontzezko bat (gizonezkoen 4x100 librean) lortu zituen Igorrek, Deianek, Mariak, Borjak eta Maierrek osatutako taldeak.

Bestalde, Borja Samaniegok bere mailako Espainiako Txapelketarako 1500L frogako "gutxiengo" lortu zuen. Orain, denboraldi honetako azken txanpa prestatzera doaz: jokoan daude klubetako trofeoak eta hainbat mailetako Arabako eta Euskadiko txapelketak. Bestalde, bukatzeko, Espainiako Txapelketa izango dute.



Maiatzaren 28an izan zen txapelketa. Aiaraldea.eus

MENDI IBILALDIA

Emakumeen osasuna hobetzeko martxa

Testua **Izar Mendiguren Cosgaya**

Emakumeen Osasunaren Nazioarteko Eguna izan zen maiatzaren bukaeran. Hori dela eta, mendi ibilaldia antolatu du igande honetarako (ekainak 11) Aiarra Berdintasunaren Alde Feroak. Irteera 9:00etan izango da Arespalditzako El Ferial guneetik. Hala, Etxaurrenako baselizara abiatuko dira partaideak,

hamaiketako eta herri argazkia egiteko asmoz. Ondoren, Arespalditzara itzuliko dira, 13:00ak aldera. Parte hartze handia espero dute antolatzaileek, izan ere, 90 lagunek eman dute izena dagoeneko. "Emakumeak martxan" kamisetak banatuko dituzte oroigarri gisa.

Alabaina, maiatzaren 31n bukatu zen izena emateko epea. Edozelan ere, ibilaldira batzeko aukera zabalik dago.

Herriko plaza



Maite

Ziur urtebetetzerik zorionsuena, kartzeletan dauden presoak gertu ditugunean izango dela!

Miguel Angel



Ane

Zooorionaaakk Aneegor!! Ondo pasa, larrunbatean gaudee!!

Andere, Janire, Maria, Ekiñe, Eider, Unax eta Galder



Maider

Segi urte luze nahi duzun gailurrera iristeko maldak atzean uzten! Maite zaitugu!

Anbotoko Mari



Iratxe

Zorionak Iratxe! Ilargi edo eguzki segi ezazu uluka!


Hiru sorgin



_BIDALI ZUREA!

Idatzi zure mezua eta bidali argazkia agurrak@aiaraldea.eus helbidera ekainaren 2a baino lehen.

Denborapasak



Karrika	Lursail erain gabea	Bakoitzari bat	Su arretako katuak
Adiskideak	DEITURA	Neures	
Hekazaria			
Lekainak			
Bizkaito herri foruzak	Toka, dut	Lur ilunaren koloreko	Bokata
IZENA	Aleakainak	Bizkor	Segurus
Izuti		Baraki mota	
Beldurti		Bokata	
		Ikastarowen hasieran	
		Horkos	
		Ipar EH-n, garbi	Bizkaito mendia
		Zangoaren atal	
Ez eme	Joaki naiz		Dena, guztia
Zati	Musika nota		Bokal biribila
		Bidali	
		Bokal mehea	
Seigarren hitabotes			Joan den urtean

♣ Atleta urduñarra

ERRAZA

		2			
4	7		8	6	
3	8		5		4
3	8	2	4	7	5
6		9	5	3	7
4	7	5	8	9	3
		6		2	
			4	6	7
5	3				8

ZAILA

	3				8
		9	4	5	2
	9	3		4	6
8	5	7			
				2	7
2	6				5
6	8	5	9	3	4
	2		8		6
	4	1			

	4		2		6
6				7	2
8	5			4	3
7	6				3
5	2			6	1
3	7	8			
9	8	5	7	4	2
			2	8	7
5			6	8	

	6		8	7	
	5	2			8
2	8		1	4	
					9
5	9	4	3		
		7		3	
4	9				2
	7		2		3
6					5

DENBORAPASEN SOLUZIOAK

Sudoku, hitz-gurutzatu eta hitz gezidunen soluzioak web-gunean ikusgai: <http://www.aiaraldea.eus/users/denborapasak>



Eskelak



Argitaratu Aiaraldea Egunkarian eta webgunean nahi duzun eskela edo agur mezua.

Urteurrenak
Oroigarriak
Esker-onak
Eskelak

Informatu eskelak@aiaraldea.eus-en

Zozketa

Aiaraldea hedabideak
Astobiza
Txakolin Magnum
botila 3
zozketatuko
ditu!
3 IRABAZLE!



Parte hartu www.aiaraldea.eus-en

FUNERARIA


L A R R A Z

E H O R Z T E T X E A

Aiaraldea txiki


Bakotzari berea

Hondakin hauek (kristalezko botila, papera eta plastikozko botila) birziklatu egiten dira baina horretarako ontzi egokian utzi behar dira. Bakarra helduko da behar duen lekura. Zein?



Dadua


Zein kubo aterako zaio Maripurtzili sei aldeak tolestu eta itsasten dituenean, A, B, C edo D?




Marraztu



Emaitzak





eta Margotu



Goxo-goxo dago lo gure katu Xapi. Zer amesten ari ote da?




Zein kubo aterako zaito Maripurtzili! sei aldeak tolestu eta itsasten dituenean, A, B, C edo D?

Dadon


Bai bitxia!!

Itsaspean aurkitu beharko ez genituzkeen elementuak daude hemen. Zeintzuk dira?



Zazpikoa

Bila itzazu bi irudi hauen artean dauden zazpi aldeak.



Kontra

Aiaraldetik mundura



Gabriela Teixeira

JAIOTERRIA
BRASIL (1993)

BIZILEKUA
LAUDIO

BIDAIAREN XEDEA
IKASKETAK GAUZATZEA

BRASIL



DESKRIBAPENA

Ofizialki Brasilgo Errepublikak Federala da, Ozeano Atlantikoko uharte batzuk hartzen ditu. Hego Amerikako estatu guztiekin du muga, Txile eta Ekuadorrekin izan ezik.

AZALERA

8.515.767 kilometro koadro.

BIZTANLEAK

206 milioi biztanle.

HIZKUNTZAK

Hizkuntza ofiziala portugesa da, baina toki askotan alemana eta italiera ere erabiltzen dira.

BITXIKERIAK

Hego Amerikako estaturik handiena eta populatuena da Brasil, eta munduko bosgarrena. Iaz BPG gehien izan zuen munduko 8. herrialdea izan zen.

Argitaratzailea:

Aiaraldea Komunikazio Leihoa
Tirada: 10.000 ale.
Maiztasuna: Hamabostekaria
Lege gordailua: BI-1230-2013
Posta elektronikoa:
egunkaria@aiaraldea.eus
agenda@aiaraldea.eus
agurrak@aiaraldea.eus
Publizitatea:publizitatea@komunika.eus
Tlfnoa: 688 62 53 94
Helbidea: Nerbioi Kalea 12, behea.
Laudio. Araba. 01400
Telefonoak: 94 656 85 54/688 62 59 00
Web-gunea: www.aiaraldea.eus
ERREDAKZIO OHARRA: Aiaraldea Aldizkariak ez du bere gain hartzen iritzi artikuluetan zein egindako elkarrizketetan adierazitakoaren erantzukizuna.

“Inauterietan dantzak elkartzen gaitu Brasilen, ez mozorroak”

Brasilen jaio eta hezi arren, Laudion bizi zara.

Nire gurasoak gu baino urtebete lehenago etorri ziren, 2004an. Ni ikasteko asmoarekin etorri nintzen, baina azkenen gutxi ikasi eta asko lan egiten ari naiz (barreak)!

Zer iruditzen zaizu Aiaraldea? Eta Euskal Herria?

Zoragarria da! Askok gustatzen zait, dena gainera! Bizitzeko ederra iruditzen zait, baita klima aldetik ere. Brasilen bero izugarria egiten du. Horrez gain, goizeko bostetan lasai etxeratzeko aukera izatea sekulakoa da. Brasilen oso arriskutsua da gauzez ateratzea, indarkeria asko dago.

Brasileko indarkeria aipatu duzu. Zer nolako egoera bizi dute han ba?

Goizeko lauretan kaletik bazabiltza litekeena da erasotzea edo

zerbait gertatzea. Ez dira emakumeen aurkako erasoak bakarrik, orokorra da. Dena den, oso matxista da Brasilgo jendea, etxeko lan guztiak nesken menpe gertatzen dira. Hemen, ordea, berdintasun gehiago dago zentzu horretan.

Zer du Euskal Herriak Brasilek ez duena?

Segurtasuna. Brasilen ez dago Euskal Herrian dagoen segurtasuna. Eguraldia ere baloratzen dut, han oso lehorra baita, beroagoa. Hemen urtaro guztiak dituzue: udazkena, negua, udaberria... Brasilen ez dago elurra ikusteko aukerarik, hegoaldean agian, baina oso zaila da.

Nolakoa da han gazteen bizi-modua?

Jendeak ikasteko ohitura du, unibertsitateko joatekoa. Ondoren lan mundura egiten da jauzi,

baina kalera asko ateratzen gara, dezente disfrutatzen dugu. Hemen lan gehiago egiten duzue. Brasilen jendea askoz eskuzabalgua eta beroagoa da, nahiz eta ez ezagutu haien etxeetara gonbidatzen zaituzte.

Oso zabaldua dago Brasileko inauterien irudia. Hemen go aratusteekin ez dute zerikusirik, ezta?

Ezberdinak dira. Inauteriak dira Brasileko festarik nagusiak. Hona etorri nintzenean Euskal Herriko aratusteak oso apalak iruditu zitzaizkidan. Iraupenari begiratzea baino ez dago, han zazpi egunez luzatzen da festa. Jende guztia ateratzen da kalea, baina ez dago mozorrotzeko hainbeste ohiturarik; dantzak elkartzen gaitu, ez mozorroak. Desfilatzen daudenak soilik janzten dira; eta bai, oso arropa gutxi eramaten dute.

Festa gosetik harago, janarietan ere nabaria izan behar da aldea...

Bai! Gazta pastelak zoratu egiten nau, probatu dudana guzuzarik goxoena da! Brasiletik “coxinha” da nire jaki gogokoena: oilasko kroketa da, birrinduta ditu gazta eta haragia, oso goxo dago. Edarriei dagokienez, “caipiriña” da ohikoena, baina ez darama vodka, “chachasa” baizik, orujoaren antzerako edaria. Zapone aldetik alkohola da nagusi.

Zelan daramazu euskararen ezagutza?

Oso gaizki, ez dut euskaraz hitz egiten, oso zaila da! Ez dut uste ikasiko dudarik...

Etorkizunera begira, zein da zure asmoa?

Mundua ezagutzea, baina hemen jarraitu nahi dut bizitzen. Ez dut nire burua Brasilen ikusten.

EGUNKARI HAU LAGUNTZEN DUTE:

